

NAFARROAKO EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN
AURREAN KOORDINATZEKO ERAKUNDE ARTEKO
III. AKORDIOAREN URTEKO JARRAIPEN TXOSTENA

2025

AURKIBIDEA

1.	AURKEZPENA.....	3
2.	III. AKORDIOA SINATU DUTEN ETA BATZORDE IRAUNKORREKO KIDE DIREN ENTITATEAK.....	5
3.	SARRERA.....	6
3.1.	Akordioaren deskripzioa eta testuingurua	6
3.2.	Txostenaren xedea	6
3.3.	Metodologia	7
4.	ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA. NAFARROAKO EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURREAN KOORDINATZEKO ERAKUNDE ARTEKO AKORDIOAREN JARRAIPENA	9
4.1.	Batzorde iraunkorra: bilerak, partaideak eta erabakiak	9
4.2.	Jarraipen batzordea: bilerak, partaideak eta erabakiak	9
4.3.	Sexu indarkeriei emandako erantzuna	11
4.4.	Poliziaren gorabeherak.....	13
4.5.	Gorabeheren kudeaketaren emaitzak eta erronkak.....	17
5.	JARDUTEKO JARRAIBIDE HOMOGENEOAK (MUGARRIAK)	17
5.1.	Indarkeriaren II. Ekintza Plana (2026-2030) egitea	18
5.2.	Profesionalentzako gida	18
5.3.	Nafarroako Emakumeen mutilazio genitala (EMG) prebenitzeko eta artatzeko protokoloa eguneratzea	18
5.4.	Ezkontza behartuak prebenitzeko eta artatzeko diziplina arteko Nafarroako taldearen sorrera.....	19
5.5.	Emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko eta artatzeko diziplinarteko taldearen sorrera.....	20
5.6.	Sexu esplotaziora bideratutako emakume salerosketaren aurkako Nafarroako Foroa berraktibatzea	22
5.7.	Akreditazio prozedurak hobetzea eta homogeneizatzea	22
5.8.	Barnahus	22
5.9.	Tokiko protokoloak	23
6.	JARDUKETAK, ARLOKA.....	24
6.1	NABI-REN JARDUKETAK.....	24
6.1.1	Sentsibilizazioa, prebentzioa eta ikerketa	24
6.1.2	Detekzioa, babesa, arreta eta erreparazioa	29
6.1.2.1.	Baliabide espezializatuen kudeaketa: Harrera baliabideak, Genero indarkeriaren biktimei osoko arreta emateko taldeak (GIBOATek), Sexu indarkeriei arreta integrala emateko zentroa (SIAIZ).....	29
6.1.2.2.	Akreditazioak eta laguntzak.....	41
6.1.3	Erantzun koordinatua	41

6.2	112 SOS NAFARROAREN JARDUKETAK	43
6.3.	OSASUN ARLOKO JARDUKETAK	44
6.4.	POLIZIAREN ARLOKO JARDUKETAK	46
6.4.1.	Polizia kidegoek jasotako salaketak	46
6.4.2.	Foruzaingoa	46
6.4.3.	Guardia Zibila	48
6.4.4.	Udaltzaingoa	50
6.4.5.	Polizia Nazionalea	50
6.5.	ARLO JURIDIKOKO ETA JUDIZIALEKO JARDUKETAK	53
6.5.1.	Emakumeei Laguntza Juridikoa Emateko Zerbitzua (ELJEZ)	53
6.5.2.	Emakumeen kontrako indarkerian espezializatutako Nafarroako jurisdikzio organoak ⁵⁴	
6.5.3.	Nafarroako fiskaltza nagusia	54
6.5.4.	Justiziako Gizarte Zerbitzua - Delituen Biktimen Arretarako Bulegoa (DBAB)	54
6.5.5.	Nafarroako Auzitegi medikuntzaren eta Zientzia Kriminalistikoen Institutua (NAMZKI)	55
6.6.	GIZARTE LAGUNTZAREN ARLOKO JARDUKETAK	57
6.6.1.	Oinarrizko laguntza	57
6.6.2.	Familia, haurrak eta nerabeak	57
6.7.	HEZKUNTZAREN ARLOKO JARDUKETAK	58
6.8.	ETXEBIZITZAREN ARLOKO JARDUKETAK	58
6.9.	MIGRAZIO POLITIKEN ARLOKO JARDUKETAK	58
6.10.	ENPLEGUAREN ARLOKO JARDUKETAK	58
6.11.	GOBERNUAREN ORDEZKARITZAKO EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA KOORDINATZEKO UNITATEAREN JARDUKETAK	60
6.12.	TOKIKO JARDUKETAK	64
6.12.1.	IRUÑEKO EMAKUMEEI LAGUNTZEKO UDAL ZERBITZUA (ELUZ)	64
6.12.2.	TOKI ENTITATEAK	67
6.12.3.	NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEN FEDERAZIOA (NUKF)	72
7.	GLOSARIOA	73

1. AURKEZPENA

Emakumeen kontrako indarkeriak hainbat adierazpen hartzen ditu (indarkeria psikologikoa, fisikoa, sexuala, ekonomikoa...) eta mundu osoko emakume eta nesken bizitzak baldintzatzen ditu. Oinarrizko giza eskubideen urraketa horrek historikoki nazioarteko erakundeak arduratzen ditu, jakitun baitira Gobernu Onean oinarritutako gobernagarritasun eredu orok benetako berdintasun eraginkorra behar duela emakumeen eta gizonen artean.

Emakumeen kontrako indarkeria da sistema patriarkal androzentrikoak bultzatzen duen eta emakumeak desabantaila egoeran jartzen dituen egiturazko desberdintasunaren ondorio larriena. Azkenaldian, ultraeskuineko mugimenduek eta mugimendu negazionistek errealtate hori zalantzan jartzen dute, ez daitezen emakumeen kontrako indarkeriak errotik moztu eta emandako aurrerapausoak sendotu.

Erakundeek erantzun koordinatua ematea da arreta integrala, diziplina anitzekoa, sistematikoa eta iraunkorra bermatzeko modua, eta inplikaturako arlo guztietako talde eta profesionalen lankidetzak behar da. Hori dela eta, Nazio Batuen Erakundeak uste du emakumei eta neskei ematen zaien arretan kalitate estandarretako funts bat dela. Nafarroako emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinatzeko III. akordioa da Foru Komunitatean koordinazio hori bermatzeko tresna.

Nafarroako Berdintasunerako Institutuak, emakumeen kontrako indarkeriaren arloan eskumenak dituenak, **Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinatzeko erakunde arteko III. akordioaren 2025eko urteko jarraipen txostena** aurkeztu du. Txosten horretan bildu dira foru-, toki- eta estatu-administrazioek sentsibilizazio, prebentzio eta ikerketarako, detekzio, prebentzio, arreta eta erreparaziorako, prestakuntza eta erantzun koordinaturako bideratzen dituzten giza baliabideak eta baliabide materialak.

2025ean, justizia arloan genero ikuspegia txertatzeari ekin diogu, justizia berdinzaleago, isuririk gabeko eta emakumeen giza eskubideekin erabat konprometitu dagoen baterantz aurrera egitea. Horretarako, beharrezkoa da emakumeen kontrako indarkeria eragiten duten egiturazko faktoreak ezagutzea eta justiziako profesionalek etengabeko prestakuntza izatea. Desgaitasuna duten emakumeen kontrako indarkeriari buruz ere hausnartu dugu, hainbestetan ikusezin gelditzen denari buruz, arreta integrala eta egokitua bultzatzeko behar diren beharrak, erronkak eta hobekuntzak aztertzeke helburuarekin.

Era berean, esku hartzen duten departamentuekin batera egindako aldebiko lanaren emaitza gisa, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea garatzeko II. Ekintza Plana diseinatu da, 2026-2030 artekoa, indarkeria horren aldaera eta adierazpen guztiei erantzun instituzional oso, koordinatu, kalitatezko eta jarraitua emanen zaiela bermatzeko.

Bestalde, Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriari arreta emateko dauden baliabide publikoen mapa jasotzen duen profesionalentzako gida eguneratu da, Nafarroan emakumeen mutilazio genitala (EMG) prebenitzeko eta artatzeko protokoloa eguneratu da, eta sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketaren biktima diren emakumeak eta neskak artatzen dituzten erakundeek Nafarroako giza salerosketaren aurkako Foroa berraktibatzeko konpromisoa hartu dute.

Berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko politika publikoek helburu argia dute: emakumeen kontrako indarkeriari azkena ematea. Erronkaren garrantziaz jabetuta, biktimei eta/edo bizirik atera direnei, eta baita gizarteari ere, jakinarazi nahi diegu Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean jarduteko erakunde arteko III. akordioa sinatu duten erakundeek hartu duten konpromisoak orain arteko intentsitate eta konbentzimendu berarekin jarraituko duela.

2025eko uztaillean Zizur Nagusian eraildako M.Z.B. eta indarkeria matxistaren biktima izan diren eta hartatik bizirik atera diren pertsona guztiak, haien familiak eta lagunak oroituz akituko dut, egunero saiatzen baitira, bakoitza bere egoeratik, indarkeriak beren bizitzetan izan duen zauri larria gainditzen. Haien suspertze eta erreparazioaren alde lanean jarraituko dugu.

Nafarroako Berdintasunerako
Institutuko zuzendari kudeatzailea

Directora gerente del Instituto Navarro para
la Igualdad

2. III. AKORDIOA SINATU DUTEN ETA BATZORDE IRAUNKORREKO KIDE DIREN ENTITATEAK

III. AKORDIOA SINATU DUTEN ENTITATEAK

- Nafarroako Gobernua
- Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritza
- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia
- Nafarroako Foru Komunitateko Fiskaltza Nagusia
- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa

JARRAIPEN BATZORDEKO KIDEAK

- Lehendakaria: Nafarroako Berdintasunerako Institutuko kudeaketako zuzendaritza
- Lehendakariordea: Nafarroako Berdintasunerako Institutua
- Idazkaria: Nafarroako Berdintasunerako Institutua
- Batzordekideak: erakunde hauetako bakoitzeko ordezkari bat, gutxienez:
 - Justizian eskumena duen Nafarroako Gobernuko departamentua
 - Hezkuntzan eskumena duen Nafarroako Gobernuko departamentua
 - Osasunean eskumena duen Nafarroako Gobernuko departamentua
 - Gizarteratze eta babes arloan eskumena duen Nafarroako Gobernuko departamentua
 - Familian eta adingabeetan eskumena duen Nafarroako Gobernuko departamentua
 - Etxebizitzan eskumena duen Nafarroako Gobernuko departamentua
 - Enpleguan eskumena duen Nafarroako Gobernuko departamentua
 - Babes zibilean eskumena duen Nafarroako Gobernuko departamentua
 - Auzitegi medikuntzan eta Zientzia Kriminalistikoetan eskumena duen Nafarroako Gobernuko departamentua
 - Migrazio politiketan eskumena duen Nafarroako Gobernuko departamentua
 - Foruzaingoa
 - Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritza
 - Polizia Nazionala
 - Guardia Zibila
 - Nafarroako Foru Komunitateko Fiskaltza Nagusia
 - BJKN – Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusia
 - Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa (NUKF)
 - Iruñeko udaltzaingoa
 - Emakumeei Laguntza Juridikoa Emateko Zerbitzua (ELJEZ)

3. SARRERA

3.1. Akordioaren deskripzioa eta testuingurua

Nafarroako emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinatzeko III. akordioaren helburua indarkeria hori prebenitzen eta hari osoki heltzen inplikaturako erakundeen arteko koordinazio eta elkarlan zabal eta onena lortzea da, eta Foru Komunitate osorako jarduketa jarraibide homogeenak ezartzea, osasun, hezkuntza, gizarte, polizia, lege eta justiziaren arloetan kalitatezko arreta bermatuko dutenak. Gainera, akordioaren helburua prebentzio lana sustatu eta indartzea da, ikerketa, prestakuntza eta sentsibilizazioaren bidez.

1997an, lehen aldiz, Nafarroako emakumeen kontrako tratu txarrei eta sexu erasoei buruzko departamentu arteko batzorde bat eratu zen. Batzorde horrek erakunde juridiko, sanitario, polizial eta sozial guztietako ordezkariak biltzen zituen, ahaleginak batu eta batera jarduteko protokolo bat egiteko. Geroago, 2002an eta 2010ean, Etxeko tratu txarren eta/edo sexu erasoen biktimak diren emakumeei arreta integrala emateko erakunde arteko I. eta II. akordioak sinatu zituzten arlo horretan inplikaturak zeuden erakundeetako agintari gorenak.

III. akordioa 2017an sinatu zen, Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak eta haren Ekintza Planak ezarritako lege eta plangintza esparru berriari erantzuteko. Horrez gain, oso garrantzitsuak izan dira Sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketaren biktimak diren emakume eta nesken alde koordinatzeko eta jarduteko protokoloa (2016an onartua eta 2019an eguneratua), Nafarroako Emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko eta haren aurrean jarduteko protokoloa (2013an onartua eta 2025ean eguneratua) eta Nafarroan ezkontza behartuen aurrean koordinatzeko eta haren aurrean jarduteko protokoloa (2024).

3.2. Txostenaren xedea

Nafarroako emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinatzeko erakunde arteko III. akordioari 2025eko jarraipen txosten honen helburua akordioaren edukiak sektoreka eta oro har betetzen direla jakinaraztea da:

- Koordinazioa eta lankidetzak.
- Arreta emateko jarraibide homogeenak.
- Prebentzio lana bultzatu eta indartzea.
- Ikerketa, prestakuntza eta sentsibilizazioa.
- Prestakuntza espezializatua eta etengabekoa.

- Jarduketa bat etortzea 14/2015 Foru Legearen printzipio eta kontzeptuekin eta hainbat protokoloekin, hain zuzen, III. akordioaren, Giza salerosketaren, Emakumeen mutilazio genitalaren eta Ezkontza behartuen protokoloekin.
- Tokiko protokoloetan parte hartzea.
- Jarduketa bateraturako, prestakuntzarako eta baliabideen zuzkidurarako protokoloa zabaltzeko jarduketak.
- Batzorde iraunkorrean parte hartzea.
- Akordioaren jarraipen batzordean parte hartzea.

Aldi berean, parte hartzen duten arloetako jarduketak modu sintetikoan islatu nahi dira, egindako hobekuntzak egiaztatu eta zailtasunak eta hobetu beharreko arloak ikusarazi.

3.3. Metodologia

2025eko jarraipen txostenak 2024ko txostenaren ereduari jarraitzen dio. Txosten birdimentsionatua da, eta III. akordioaren funtsezko helburutik, koordinaziotik, abiatzen da. Jarraipen txostenak aurrerapenen eta hobetu beharreko arloen berri eman behar du; beraz, sinplifikatze aldera, ez du jasotzen Nafarroako Gobernuaren jarduketaren kontakizun xehatua, hori Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea garatzeko Ekintza Planean jasotzen baita.

Bildutako informazioa bateratzeko, fitxak bidali zaizkie III. akordioa sinatu duten erakundeei, berdintasunean espezializatutako teknikariak dituzten toki erakundeei eta emakumeen kontrako indarkeriaren arloan lan egiten duten baliabide espezializatuak. Bildu beharreko informazioa bat dator Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea garatzeko II. Ekintza Planaren lau ardatzekin:

- I. ARDATZA: Sentsibilizazioa, prebentzioa eta ikerketa
- II. ARDATZA: Detekzioa, babesa, arreta eta erreparazioa
- III. ARDATZA: Prestakuntza
- IV. ARDATZA: Erantzun koordinatua

Fitxetan *Ezarritako hobekuntzak, mugarriak eta emaitza aipagarriak* eta *Hautemandako zailtasunak eta hobetu beharreko arloak* atalei ematen zaien garrantzia (kapitulu bakoitzean daude) III. akordioaren dinamika progresiboaren jarraipenari eta erakundeek helburuen garapenean zein haien etengabeko hobekuntzan duten inplikazioari emandako garrantziaren adierazgarri da. Helburu nagusia koordinazioa denez, txostenean gorabehera anitz erregistratu dira, eta praktikak berresten du gorabehera horiek ebaztean prozedura partekatuak hobetzen direla.

III. akordioa sinatu duten erakundeek, baliabide espezializatuek eta teknikari espezializatuak dituzten toki erakundeek igorritako fitxak txosten honen osagarri den eranskin bereizi batean jaso dira.

4. ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA. NAFARROAKO EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURREAN KOORDINATZEKO ERAKUNDE ARTEKO AKORDIOAREN JARRAIPENA

2025ean, batzorde iraunkorrak azaroan izan zuen urteko bilera, eta jarraipen batzordea ekainean, irailean eta azaroan bildu zen.

4.1. Batzorde iraunkorra: bilerak, partaideak eta erabakiak

2025eko azaroaren 4an batzorde iraunkorraren bilera egin zen, eta batzordea osatzen duten pertsona guztiak bertaratu ziren. Hauxe zen gai zerrenda:

- Erakunde arteko akordioaren 2024ko urteko jarraipen txostenaren aurkezpena.
- Emakumeen kontrako indarkeriaren arloko egungo egoerari buruzko hausnarketa eta hobetzeko proposamena.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Espainia kondenatu du Nafarroako bi herritarri kalte ordaina ematera, 2016ko abenduan ustez izandako sexu indarkeria kasu batengatik. Epai horren gainean hitz egin ondoren, batzordeak berretsi du hobetu egin behar dela erakundeen arteko kontu hartzea eta koordinazioa, eta, beraz, berriro nabarmendu du garrantzitsua dela Erakunde arteko akordioa eguneratzea.

4.2. Jarraipen batzordea: bilerak, partaideak eta erabakiak

Lehen ohiko bilkura

2025eko ekainaren 9an jarraipen batzordearen lehen bilera egin zen.

Puntu hauek zeuden gai zerrendan:

- Erakunde arteko akordioaren 2024ko urteko jarraipen txostenaren aurkezpena.
- Emakumeen kontrako indarkeriaren arloko egungo egoerari buruzko hausnarketa eta hobetzeko proposamena.
- Nafarroan emakumeen mutilazio genitala (EMG) prebenitzeko eta artatzeko protokoloa eguneratzea onestea.
- Profesionalentzako gida onestea eta eguneratzea: Nafarroako emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko baliabideak.

Erabakiak: Nafarroan emakumeen mutilazio genitala (EMG) prebenitzeko eta artatzeko protokoloa eguneratzea eta Nafarroako emakumeen kontrako indarkeriari arreta emateko baliabideen profesionalentzako gida eguneratzea onetsi da.

Bilkura berezia

Irailaren 24an, Erakunde arteko akordioaren jarraipen batzordeak ezohiko bilkura egin zuen, uztailaren 29an Zizur Nagusian eraildako Mercedes Bezunartea Valenciaren kasuari buruz hitz egiteko.

Bilkuraren helburua erakundeen erantzuna aztertzea eta ebaluatzea izan zen, eta aurrekariari eta beste datu batzuei buruzko informazioa biltzea, koordinazioan edo zerbitzuetan hobetu beharreko arloak identifikatzen laguntzeko. Beraz, batzorde teknikoa izan zen, eta, haren ondoren, txosten konfidentzial bat egin zen. Bildutako informazioa Berdintasun Ministerioak deitutako estatuko krisi batzordean landu zen.

Hauek egon ziren batzorde berezian:

- NABI
- Emakumeei Laguntza Juridikoa Emateko Zerbitzua (ELEZ)
- Hezkuntza
- Osasuna
- Babes zibila
- Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritza
- Polizia Nazionalea
- Guardia Zibila
- Zizur Nagusiko udaltzaingoa
- Zizur Nagusiko udala

Bigarren ohiko bilkura

Azaroaren 27an jarraipen batzordearen bigarren urteko bilera egin zen. Gai hauek zeuden gai zerrendan:

- Emakumeen kontrako indarkeriaren arloan 2025ean egindako jarduerari buruzko informazioa eta 2026rako lan ildo nagusiak.
- Sexu esplotaziora bideratutako emakume salerosketaren aurkako Nafarroako Foroa berraktibatzea.

Taula honetan, 2025eko bi ohiko jarraipen batzordeetara nor joan zen jasotzen da:

	BERTARATU DA		SALBUETSIA		EZ DA BERTARATU	
	09/06	27/11	09/06	27/11	09/06	27/11
Batzordeko lehendakaria (NABI)	X	X				

Batzordeko lehendakariordea (NABI)	X	X				
Batzordeko idazkaria (NABI)	X	X				
Justizia		X	X			
Hezkuntza	X	X				
Osasuna	X	X				
Gizarteratzea eta babesa	X			X		
Familia eta adingabeak	X	X				
Etxebizitza		X	X			
Enplegua	X	X				
Babes zibila	X	X				
Auzitegi medikuntza eta Zientzia Kriminalistikoak		X	X			
Migrazio politikak		X			X	
Foruzaingoa	X	X				
Gobernuaren Ordezkaritza	X	X				
Polizia Nazionala	X	X				
Guardia Zibila	X	X				
NFKko fiskaltza nagusia			X			X
Nafarroako probintzia auzitegiaren 2. atala	X			X		
Zigor arloko 5. epaitegia			X			X
Emakumeen kontrako indarkeriaren arloko 1. epaitegia			X	X		
Emakumeen kontrako indarkeriaren arloko 2. epaitegia				X	X	
Iruñeko udaltzaingoa	X	X				
Emakumeei Laguntza Juridikoa Emateko Zerbitzua	X	X				
NUKF	X			X		

4.3. Sexu indarkeriei emandako erantzuna

Emakumeen mutilazio genitala (EMG)

[Nafarroako Emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko eta haren aurrean jarduteko 2025eko protokoloa](#) eguneratu da, eta diziplinarteko taldea eratu da, EMG prebenitzeko eta hari arreta emateko. Horretarako, prestakuntza eman da.

2025ean, Médicos del Mundo elkarteak, NABIekin hitzarmena duenak:

- EMG praktikatzen den herrialdeetatik etorritako 133 emakume artatu ditu. Horietatik % 80 inguru EMGtik bizirik ateratakoak dira.
- 267 profesional prestatu ditu EMGren prebentzioan eta haren aurrean jarduteko, eta detekzioa eta erantzun instituzionala indartu ditu.
- Emakumeen talde komunitarioak finkatu ditu Iruñean, Tuteran, Azkoienen, Faltzesen eta Funesen, prebentziorako, ahalduntzeko eta elkarri laguntzeko espazio gisa.
- Esku-hartze arrakastatsua egin du Ginea Konakrytik adingabe bat premiaz itzultzeko, ezkontza behartua eta EMG jasateko arriskua zegoelako.

Harrera baliabideetan bi kasu detektatu dituzte.

Lau osasun eskualde oinarritzotan 61 kontsulta egin dira EMG dela-eta. Arriskuan zeuden 5, 7, 8, 11, 14 eta 15 urteko adingabe bana detektatu ziren, eta 6 prebentzio konpromiso sinatu ziren. Sei kasuetan, konpromisoa sinatu ondoren kontsultetara joan ziren.

Profesionalen artean protokoloa hedatzeko beharra detektatu da.

Prestakuntza urtero eskaintzen zaie, sistematikoki, zentro zibiko eta SUOAZ guztiei. 2025ean, 7 zentro hartu dute parte (6 zentro zibikok eta SUOAZ batek). Prestakuntza hori derrigorrezkoa ez izatea prestakuntza espezializatua bermatzeko zailtasuntzat jotzen da.

Ezkontza behartuak

2025ean, ezkontza behartuak prebenitu eta biktimei arreta emateko diziiplina arteko taldea eratu da, eta prestakuntza jaso du.

Ezkontza behartuei berei dagokienez, 9 kasu detektatu dira, eta horietatik 4 adingabeenak dira:

- Pakistandik etorritako espainiar heldu baten kasua detektatu du SIAIZek
- Emakume marokoar heldu baten kasua detektatu zuten harrera baliabideek.
- Tuterako HNLTan, jatorri errumaniarreko 15 urteko neska baten kasua detektatu zuten, senideen arteko ezkontza kasu bat, eta Guardia Zibilak hura aurkitzeko esku hartu zuen. Hainbat zerbitzurekin koordinatuta egin zen, besteak beste, Familia eta adingabeak eta NABIrekin.
- Iruñerriko eta Iparraldeko eremuko GIBOATEk lau kasu detektatu zituen: heldu aljeriar bat, bi marokoar (horietako bat senide batekin ezkondua) eta laugarren bat, espainiar-marokoarra.
- Eguesibarko OGZek bi errumaniar adingabe detektatu zituzten, eta Arrosadiko oinarrizko unitateak beste bat.

Médicos del Mundo elkarteak berretsi du Pakistango adingabe baten ezkontza behartuaren berri duela, eta 2025ean ijito errumaniarren komunitatean hiru ezkontza detektatu zituela (ez du adina zehaztu). Ez duenez informazio gehiago eman, ez dira aurreko zenbaketara gehitzen.

Oraindik ere ezkontza behartuen inguruko isiltasun eta normalizazio komunitario handia dago, eta horregatik zaila da goiz detektatzea eta salatzea. Hizkuntza oztopoak ere zailtasuna dira. Kulturen arteko bitartekaritza behar da, eta aldaketarako eragile komunitarioak prestatu behar dira. Administrazio egoera irregularrak eta emakume askoren mendekotasun ekonomikoak zaurgarritasuna areagotzen dute eta indarkeria testuinguruetatik ateratzea zailtzen dute.

Sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketa

Sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketari dagokionez, 17 kasu detektatu dira 2025ean. Salerositako emakumeak Brasildik (7), Kolonbiatik (5), Marokotik (2), Paraguitik (1), Venezuelatik (1) eta Nigeriatik (1) zetozen.

Biktimei dagokienez, Itxaropen Gunek, sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketaren biktime diren emakumeentzako harrera baliabideez arduratzen den erakundeak, berretsi du behar adina denbora eta konfiantza eman behar zaiela beren kontakizuna eraiki dezaten. Zaila zaie giza salerosketaren biktime direla jabetzea, eta horri enpleguaren eta etxebizitzaren zailtasunak gehitu behar zaizkio.

Sexu indarkeriei dagokienez, eta 2026-2027 Biurteko Planaren esparruan erregistro homogeenak ezartzeko asmoz, fitxa eredu bat bidali zitzairen sexu indarkeriaren biktime diren emakumeak artatzen dituzten erakundeei, artatutako emakume bakoitzaren datuak jasotzeko, bai eta urteko laburpena egiteko eredu bat ere. Txosten hau egiten ari garen unean, erakunde askok ez dute erantzun, edo zehaztasunik gabe erantzun dute; beraz, aurkeztzen diren datuak ez dira hain gai sentikor batean izan beharko luketen bezain fidagarriak. Espero dugu hurrengo edizioetan zalantzarik gabeko datuak eskaini ahal izatea.

4.4. Poliziaren gorabeherak

2017an, gorabeherak kudeatzeko prozedura bat prestatu zen, Erakundeen arteko III. akordioako Jarduketa bateratuko protokoloaren esparruan, esku hartzen duten estamentuek jarduketa- eta koordinazio-mekanismo eraginkorrak izateko beharrari erantzuteko, eta azken helburua emakumeen kontrako indarkeriatik bizirik atera diren biktimeentzako arreta hobetzea da. Horretarako, NABIk idatzizko jakinarazpena jasotzen du eta jarraipen batzordeko kideei gorabeherari buruzko informazioa eskatzen die.

2025ean bost gorabehera erregistratu ziren:

➤ 1. gorabehera

Nork: Gobernuak Nafarroan duen ordezkaritzaaren emakumeen kontrako indarkeriaren kontrako koordinazio unitateak.

Inplikaturako erakundea: SIAIZ

Gaia: Iruñeko polizia etxe batean emakume bat artatzen ari zirela, bai abokatuak bai salaketa jaso zuen poliziak (biak gizonezkoak) adierazi zuten SIAIZeko (emakumezko) langile baten jokabidea ez zitzaiela egokia iruditu, ezta abokatuaren funtzioekiko errespetuzkoa ere. Argudiatu dutenez, behin baino gehiagotan eten zuen deklarazio hartzea, atestatuan profesional juridikoaren aholkularitzaren kontrakoak ziren edukia sartzea eskatzeko; gertaerak behar bezala jasotzea kaltetu zuen eta ez zuen lagundu salatzailearen aldartea baretzen. Abokatuak Abokatuen Elkargora eraman zuen langile horren jarduketari buruzko kexa.

Bestalde, SIAIZeko langileak adierazi du salatzailearen kontakizuna fidelki jasotzeko hartu zuela esku, esku hartzen ez ziren egoerak zeudelako eta kontakizuna osoago bihurtzen zutelako. Biktimak aipatzen zituen audio eta solasaldiak bildu behar zirela ere azpimarratu zuen. Era berean, “biktimak erasotzaileari bide eman ote zion” eta tankerako galderen aurrean kontu hartu zuen, eta eskatu zuen jaso zezatela erasotzaileak barkamena eskatzeko salatzailea etxetik bota zuela, mespretxuz.

Ondorioa: Jarduketa profesionaleko jarraibideak gogorarazten dira, aukera ematen dutelako, biktimen eta bizirik atera direnen arreta integralari dagokionez, Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legean jasotakoa bermatzeko, bereziki printzipio hauei dagokienez: behar bezalako arreta, erantzun integrala, koordinazioa, errespetua, ez birbiktimizatzea eta erantzukizuna.

➤ 2. gorabehera

Nork: SIAIZ eta Foruzaingoak

Inplikaturako erakundea: Harrera baliabideak

Gaia: Sexu indarkerien arreta integraleko zentroak (SIAIZ) eta Foruzaingoaren laguntza brigadak NABlri jakinarazi zioten gorabehera bat egon zela bikotekidearen edo bikotekide ohiaren esparrutik kanpoko sexu eraso baten biktima batek laguntza baliabideetan sartzeko eskatu zuenean. Adierazi zutenez, harrera baliabideen larrialdietako zentroko profesional batek informazio okerra helarazi zien Foruzaingoaren laguntza brigadari eta SIAIZi, baliabidean sartzeko irizpideetako bati dagokionez, esan baitzuen bikoteak edo bikotekide ohiak egindako genero indarkeriaz arduratzen zirela, eta hasiera batean ukatu egin zion pisukide baten sexu erasoak jasan zuen biktimari baliabidean sartzeko. SIAIZek adierazi du 14/2015 Foru Legea aplikatu behar dela.

Bestalde, harrera baliabideek adierazi zuten indarkeria mota guztiak hartzen dituztela (bikote edo bikotekide ohiarenak eta hortik kanpokoak ere), eta, hasiera batean, emakumearen prostituzio testuinguruagatik ukatu ziotela sarbidea, indarkeria adierazpen horretarako baliabide espezifikoak daudelako.

Ondorioa:

NABik gogorarazten du indarkeriaren biktima diren eta hartatik bizirik atera diren emakumeekiko esku-hartzean erantzun integrala eman behar dela, inplikaturako erakundeen artean ahalik eta koordinazio handiena egon behar dela eta errespetuaren eta birbiktimizaziorik ezaren printzipioak bermatu behar direla. Gai hori oso garrantzitsua da erakundeek biktimak lehen aldiz artatzen dituztenean, une hori funtsezkoa baita biktimek beren susperraldia eta jasotako arreta ulertzeko moduan.

Bestalde, erakunde publikoek prestakuntza prozesuak ezarri behar dituztela adierazi du, emakumeen eskubideak benetan erabiltzen direla bermatzeko ardura dutenek behar den arduraz jokatzeko dutela bermatzeko.

Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak 3. artikuluan jasotzen ditu Nafarroako Gobernuaren baliabide publiko eta espezializatuek artatu behar dituzten indarkeria adierazpenak, eta indarkeria adierazpen horiek artatzen dira Nafarroako Gobernuaren baliabide espezializatuetan, prostituzioaren eta/edo sexu esplotazioaren biktimak barne.

Egoitza baliabideei dagokienez, Nafarroan baliabide espezifikoak ditugu sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketaren biktimentzat eta prostituzio testuinguruetako emakumeentzat. Lehen aipaturako gainerako indarkeriak harrera baliabide orokorretan artatzen dira.

Biktima premiaz bizileku seguru batera eraman behar denean, larrialdietako zentroak ematen du arreta, eta urteko 365 egunetako 24 orduetan egoten da prest. Ondoren, larrialdietako zentrotik dagokion bideratzea egingen da, baldin eta sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketaren biktima edo prostituzio testuinguruan dagoen emakume bat bada, prostituzioko eta/edo sexu esplotazioko baliabide espezifikoak ez baitute aurrez aurreko arreta profesionalik eguneko 24 orduetan.

Erantzun integralak eta koordinazioak izan behar dute jarduketa guztiak eta bizirik atera diren biktimen beharrei eman beharreko erantzuna zuzendu eta gidatu behar dituzten printzipioak. Instituzioen erantzuna integrala izan dadin, emakumeen kontrako indarkeriaren arloan lan egiten duten baliabide eta zerbitzuen arteko koordinazioa sustatu behar da.

➤ 3. gorabehera

Nork: Indarkeriaren biktima den eta babes judizialeko neurri aktiboa duen herritar batek
Inplikaturako erakundea: Foruzaingoa

Gaia: Kexa formala Foruzaingoak ez zuelako ezer egin urraketa bat salatutakoan. Salaketan berariaz adierazten zen abian zegoen prozedura penala, baina ez zuten jarduketarik egin, ez zuten salaketa epaitegira igorri eta ez zen aktibatu arriskuaren balorazio polizialaren protokoloa. Emakumeak ere ez zuten informaziorik jaso, eta horrek, bere hitzetan, arriskua areagotu eta erakundeengandiko babesgabetasun sententzia indartu zuen. Bestalde, arrisku balorazio bat zegoen eta emakumeak ez zuten haren berri, eta ez dago harekin ados, arrisku maila aldatzen duelako.

Ondorioa: Arriskuaren balorazio polizialari dagokionez, Foruzaingoak adierazi du gaian gaitasun egiaztatuta duen profesional espezializatu batek egin duela, irizpide tekniko objektiboak aplikatuz eta ahalik eta zorrotasun handienarekin, indarrean dauden protokoloen arabera eta 2020ko VPR-H eta VPER (Arriskuaren balorazio polizialerako protokoloa eta Genero indarkeriaren biktimen segurtasuna kudeatzeko protokoloa) prozedura gidan ezarritako irizpideen arabera.

Epaitegira salaketa igortzean izandako atzerapena dela-eta, egiaztatu da barne koordinazioko disfuntzio puntual bat gertatu dela, salaketak igortzeko moduan berriki izandako aldagetak onduz. Ohiz kanpoko gorabehera bat da, haren jatorria identifikatu da eta neurri egokiak hartu dira akatsa zuzendu eta kudeaketa etengabe hobetzen dela bermatzeko.

Foruzaingoak adierazi du sentitzen duela erabiltzaileak ondoeza jasan izana, eta adierazi du poliziaren jarduketa aplikatu beharreko araudiari eta genero indarkeriaren arloan indarrean dauden protokoloak jarraituz egin zela, bermatuz eskubideei buruzko informazioa ematen zela eta biktima babesten zela.

Adierazi du, salaketa epaitegira bidaltzean izandako gorabehera puntualaren ondoren, beharrezko neurri zuzentzaileak hartu direla. Horrez gain, biktimak artatzearekin eta babestearekin duen konpromiso irmoa berretsi du, baita emandako zerbitzuaren kalitatea etengabe hobetzearekin duena ere.

➤ 4. gorabehera

Nork: NABik

Inplikaturako erakundea: Genero indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritza.

Gaia: Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 2024ko memorian jasotako hutsegiteak Nafarroan duen intzidentzia. Memoria horretan, gailu telematikoetan (eskumuturrekoetan), zerbitzu emailen eta prozesu penalei eragiten zieten datuen migrazioan detektaturako akats ugariak berri ematen da.

Ondorioa: Genero indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritzak erantzun txosten bat egin du, eta hauek dira aipu garrantzitsuenak:

1. Zerbitzuaren erabiltzaileak uneoro egon dira sistemaren babespean, eta aurreikusitako protokoloak aktibatu dira gorabeheraren bat gertatuz gero, bai erasotzailearen urraketa batengatik, bai gorabehera teknikoa izanez gero.

2. 2024an, hainbat gorabehera erregistratu ziren, kontratu berri bat martxan jarri zelako, eta, ondorioz, teknologia aldatu zelako eta zerbitzua indarkeria sexualen eremura zabaldu zelako.

COMETA zerbitzuaren kontrol zentroak artatu zituen gorabehera horiek, eta Genero indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritzak monitorizatu zituen. Gorabehera guztiak konpondu ziren.

3. Kontratu berriaren ondorioz, enpresa adjudikazioduna aldatu da, plataforma berri bat sortu da, gailu guztiak ordezkatu dira eta hainbat hilabete behar izan ziren gailu guztiak migratzeko.

4. Sistemaren datu baseen polemikari dagokionez, indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritzak azpimarratu du informazioa ez zela inoiz galdu, baizik eta aldi baterako zailtasunak izan zirela zerbitzuaren enpresa adjudikaziodunak aurreko aldian gordetako informazioa eskuratzeko. Gorabehera horiek ez zuten, inola ere, eraso fisikoen delituak epaitzeko prozedura judizialetan eraginik izan.

➤ 5. gorabehera

Nork: Larrialdietako zentrotik kanporatutako erabiltzaile batek

Inplikaturako erakundea: Harrera baliabideak

Gaia: Kanporatzea falta oso astunagatik, barne araudiko 3. artikuluan jasotakoarengatik, errekurtsoan gaua eman beharrari buruzkoa, zeina ezinbestekoa baita esleitutako plaza mantentzeko. Neurri horren helburua erabiltzaileak babestea eta haien segurtasuna bermatzea da. Erabiltzaileak errekurtsoa aurkeztu zuen.

Ondorioa: Erabiltzaileak idatziz sinatu zuen, harrera baliabideetan sartzean, barne araudia onartzen zuela. Hori dela eta, harrera baliabideen koordinatzaileak jakinarazi zion baliabidetik irten baino lehen bi egun izanen zituela.

4.5. Gorabeheren kudeaketaren emaitzak eta erronkak

Planteatutako bost gorabeheretatik bitan, jarduketak arautzen dituzten araudiak eta erregelamenduak gogorarazi behar izan dira, eta, kasuetako batean, beharrezkotzat jo da bideratze protokoloak ezartzea. Bi gorabeheratan, informazioa emanez erantzun zen.

Beharrezkoa da NABiren erantzukizuna eta titulartasuna zabaltzea, III. akordioko gorabeherak kudeatzeko eta ebazteko eskumenari dagokionez.

5. JARDUTEKO JARRAIBIDE HOMOGENEOAK (MUGARRIAK)

NABik jarduera hauek bultzatu ditu, emakumeen kontrako indarkeriaren adierazpen guztien aurrean jarduteko jarraibideak homogeneizatzeko tresnak sortu eta finkatzeko.

5.1. Indarkeriaren II. Ekintza Plana (2026-2030) egitea

2025ean, Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea garatzen duen II. Ekintza Plana (2026-2030) egin da. Nafarroako Gobernuak duen plangintzarako tresna da, Foru Legearen garapena bermatzeko eta Nafarroako Foru Komunitatean emakumeen kontrako indarkeriari heltzeko.

II. Plana plan gidari bat da, helburutzat duena erakundeek erantzun integrala, koordinatua, kalitatezkoa eta iraunkorra ematea emakumeen kontrako indarkeriaren forma eta adierazpen guztiei. Bost urteko iraupena du (2026-2030).

Dokumentu estrategiko bat du, Esparru Plana, eta hamabi plan sektorial (kultura, kirola eta jarduera fisikoa, gizarte eskubideak, hezkuntza eta unibertsitatea, enplegua, berdintasuna, barne arazoak, justizia, gazteria, migrazio politikak, osasuna eta etxebizitza). Inplikaturako departamentuekin batera landu da plana. Halaber, indarkeriaren arloko baliabide espezializatuek eta Nafarroako Berdintasun Kontseiluak hartu dute parte. Azaroaren 14tik abenduaren 14ra, Plana parte hartze publikoari irekita egon zen, eta 180 ekarpen baino gehiago jaso zituen.

5.2. Profesionalentzako gida

2025ean, [Profesionalentzako gida](#) eguneratu da. Gida horrek Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriari erantzuteko dauden baliabide publikoen mapa eskaintzen du. Gidaren helburua indarkeria horri heltzen dioten hainbat arlotako profesionalek baliabideei buruzko informazioa izatea da, zer unetan esku-hartzen duten identifikatu ahal izatea eta baliabideen erabilera egokia egitea. Gaztelaniaz eta euskaraz dago eskuragarri, formatu digitalean.

5.3. Nafarroako Emakumeen mutilazio genitala (EMG) prebenitzeko eta artatzeko protokoloa eguneratzea

[Nafarroako Emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko eta haren aurrean jarduteko protokoloa](#) erreferentziazko tresna da EMG prebenitzeko eta bizirik ateratzen diren emakumeei arreta emateko. Hori eguneratzeko beharra ikusita, eta urte hauetan egindako lana aitortuta, batez ere Nafarroan esku hartzen duten gizarte erakundeen lan garrantzitsua aintzat hartuta, NABIk ebaluazio eta eguneratze prozesu bat bultzatu zuen, generoa, feminismoa, giza eskubideak, interseksionalitatea eta nesken eskubideak oinarri hartuta. Horretarako, elkarriketak, inkesta bat eta foku talde bat egin ziren, eta arreta berezia jarri zitzaion urteotan jazotako aldaketei, batez ere lege aldaketei, haiengatik eguneratu delako Nafarroako Emakumeen mutilazio genitala (EMG) prebenitzeko eta artatzeko protokoloa.

5.4. Ezkontza behartuak prebenitzeko eta artatzeko diziplina arteko Nafarroako taldearen sorrera

Nafarroako ezkontza behartuak prebenitzeko eta artatzeko diziplinarteko taldea 2025eko maiatzaren 16an sortu zen. Esparru hauetako ordezkariak parte hartzen dute taldean:

Osasun, hezkuntza eta gizartearen arloetatik:

- Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia
- PAGNA (Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua)
- Karibu-Migratzaileei Harrera eta Lagun Egiteko Zerbitzua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia)
- Gizarte zerbitzuguneak (ipar-mendebaldea, ipar-ekialdea, Iruña eta Iruñerria, Lizarra, Tafalla eta Tuterak)
- Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzailak (Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua. Osasun Departamentua)

- Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzua (Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia)

Poliziaren arlotik:

- Foruzaingoa
- Guardia Zibila
- Iruñeko udaltzaingoa
- Polizia Nazionalea
- Gobernuak Nafarroan duen ordezkariaren emakumeen kontrako indarkeriaren kontrako koordinazio unitateak.

Emakumeen kontrako indarkeria artatzeko baliabide espezifikoak:

- Genero indarkeriaren biktimei osoko arreta emateko taldeak, GIBOATEk (Iruñerria eta Iparraldeko eremua, Lizarrako eskualdea, Tafallako eskualdea eta Tuterako eskualdea)
- Sexu indarkeriei arreta emateko zentroa. SIAIZ
- Nafarroako Delituen Biktimei Laguntzeko eta Organo Judizialekin Aritzeko Atala (SAVD, gaztelaniaz)
- Iruñeko Udaleko Emakumearen Arreta Zerbitzua (SMAM, gaztelaniaz)
- Itxaropen Gune. Prostituzioan eta sexu esplotazioan murgilduta dauden emakumeentzako harrera egoitzak
- Harrera baliabideak (larrialdietako zentroa, babes etxea eta egoitza etxebizitzak).

Gizarte entitateak:

- Gurutze Gorria
- Ijitoen Idazkaritza fundazioa

- Nafarroako Médicos del Mundo
- Nafarroako SOS Arrazakeria

Maiatzaren 16ko bilkurako partaideek Kataluniako ezkontza behartuei heltzeko ereduari buruzko prestakuntza txiki bat jaso zuten. Irakaspenak eta gomendioak, Ariadna Vilà Castelló emakumeen kontrako indarkerian espezializatutako psikologoaren eta Kataluniako Generalitateko Indarkeria matxistak desagerrarazteko zuzendaritza nagusiko teknikariaren eskutik.

NABIk Nafarroako emakumeen, nerabeen eta nesken ezkontza behartuen aurrean koordinatzeko eta haren aurrean jarduteko I. protokoloaren laburpen txiki bat egin zuen, eta taldeari dagozkion zereginak azaldu zizkion:

- Bi urteko lan planak egitea protokoloa eraginkorra izan dadin, protokoloaren ildo guztiak kontuan hartuta (prebentzioa, detekzioa, arreta espezializatua eta suspertzea, eta babesa eta justiziarako sarbidea).
- Jarduketa arlo bakoitzean izandako intzidentziari eta arretari buruzko datuak biltzea.
- Protokoloaren edukiak hobetu eta aplikatzea.

5.5. Emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko eta artatzeko diziplinarteko taldearen sorrera

Taldea 2025eko azaroaren 17an sortu zen.

Esparru hauetako ordezkariak parte hartzen dute taldean:

Osasun, hezkuntza eta gizartearen arloetatik:

- PAGNA Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia (Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua).
- Karibu-Migratzaileei Harrera eta Lagun Egiteko Zerbitzua (Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia).
- Gizarte zerbitzuen areak (ipar-mendebaldea, ipar-ekialdea, Iruña eta Iruñerria, Lizarra, Tafalla eta Tuterak).
- Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzailerak (Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua. Osasun Departamentua)
- Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzua (Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia)

Poliziaren arlotik:

- Foruzaingoa
- Guardia Zibila
- Iruñeko udaltzaingoa
- Polizia Nazionalea

- Gobernuak Nafarroan duen ordezkariaren emakumeen kontrako indarkeriaren kontrako koordinazio unitateak.

Emakumeen kontrako indarkeria artatzeko baliabide espezifikoak:

- Genero indarkeriaren biktimei osoko arreta emateko taldeak, GIBOATek (Iruñerria eta Iparraldeko eremua, Lizarrako eskualdea, Tafallako eskualdea eta Tuterako eskualdea)
- Sexu indarkeriei arreta emateko zentroa. SIAIZ
- Nafarroako Delituen Biktimei Laguntzeko eta Organo Judizialekin Aritzeko Atala (SAVD, gaztelaniaz)
- Iruñeko Udaleko Emakumearen Arreta Zerbitzua (SMAM, gaztelaniaz)
- Itxaropen Gune. Prostituzioan eta sexu esplotazioan murgilduta dauden emakumeentzako harrera egoitzak
- Harrera baliabideak (larrialdietako zentroa, babes etxea eta egoitza etxebizitzak)

Gizarte entitateak:

- Nafarroako Médicos del Mundo
- Giza salerosketaren Foroa

Partaideek Emakumeen mutilazio genitalaren protokoloa eguneratzeari buruzko prestakuntza txiki bat jaso zuten, Médicos del Mundo elkarteko hiru hizlariren eskutik.

NABIk Nafarroako EMG prebenitzeko eta artatzeko protokoloa aurkeztu zuen, eta taldeari dagozkion zereginak azaldu zituen:

- Bi urteko lan planak egitea protokoloa eraginkorra izan dadin. NABIk fitxa bana bidaliko die parte hartzen duten arloei, protokoloaren ildoak (prebentzioa, detekzioa, arreta espezializatua eta suspertzea, eta babesa eta justiziarako sarbidea) kontuan hartuta egindako jarduketak jasotzeko.
- Jarduketa arlo bakoitzean izandako intzidentziari eta arretari buruzko datuak biltzea. NABIk Erakunde arteko III. akordioaren jarraipen txostenerako datuak eskatzen dituenean (urte hasieran) bilduko dira datuak. Datu horiek txostenean bertan jasoko dira
- Protokoloaren edukiak hobetu eta aplikatzea.

2026tik aurrera, Emakumeen mutilazio genitalerako (EMGrako) protokoloaren eta Ezkontza behartuen (EB) protokoloaren diziplina arteko taldeen bilerak bateratu egingen dira. Hala, lantalde horietako zenbait kidek egindako eskaerei erantzuten zaie.

Sexu indarkeriaren bi adierazpen horien intzidentziari buruzko datuak, Sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketaren biktime diren emakume eta nesken alde koordinatzeko eta jarduteko protokoloarekin batera, txosten honetan sartu dira.

5.6. Sexu esplotaziora bideratutako emakume salerosketaren aurkako Nafarroako Foroa berraktibatzea

2019an, Gobernuaren Ordezkaritzak Sexu esplotaziorako giza salerosketaren biktimak babesteko esparru protokoloaren jarraipen batzordea sortu zuen. Batzorde horren zereginak eta kideak Sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketaren aurkako Nafarroako Foroaren antzekoak zirenez, azken horren talde teknikoak bilera egiteari utzi zion 2020an.

Hala ere, giza salerosketaren aurkako Nafarroako Foroaren talde teknikoa osatzen duten gizarte erakundeek hura berraktibatzea eskatu zuten, eta 2025eko azaroaren 27an NABIk III. akordioaren jarraipen batzordeari jakinarazi zion hura berraktibatzeako konpromisoa hartu zuela.

5.7. Akreditazio prozedurak hobetzea eta homogeneizatzea

NABIk indarkeriaren biktimaren akreditazioa ematen du, etxebizitza babestuak erreserbatzeko eta etxebizitzaren arloko beste jarduketa babesgarri batzuk eskuratzeko, Gizarte Politiketako kontseilariaren apirilaren 13ko 234/2015 Foru Aginduaren arabera. Foru agindu horren bidez, genero indarkeriaren biktimentzako akreditazioa arautzen da, etxebizitza babestuak erreserbatzeko eta etxebizitzaren arloko beste jarduketa babesgarri batzuk eskuratzeko.

2025ean, emakumeen kontrako indarkeria akreditatzeko prozedurak hobetzeko eta homogeneizatze lanek jarraitu egin dute. Lehenengo pausoa araudia berrikustea eta eguneratzea da, prozedurak indarrean dagoen estatuko araudiarekin lerrokatze.

5.8. Barnahus

Barnahus (haurren etxea islandieraz), haurren aurkako sexu erasoetan esku hartzen duten baliabide guztiak espazio berean konbinatzen dituen diziplinarteko zentroa da, alegia, aldez aurreko frogak, behaketa medikoa, senideentzako laguntza, iraupen labur zein luzeko tratamendu psikologikoa eta abar konbinatzen dituen zentroa.

Eredu horren helburua biktima adingabeekin edo erasoaren susmopean daudenekin egiten diren ebaluazioak eta elkarriketak murritztea da, eta, diziplina anitzeko lantaldeen koordinazioari esker, profesional trebatuak dituen ingurune lagunkoia izan nahi du.

Justizia Departamentua buru duen proiektu honek Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuk eta beste erakunde batzuk inplikatzeko, biktima adingabe edo nerabeen aurkako erasoak edo bestelako delituak detektatzeko zentroak direlako.

2025ean, NABIk Nafarroan Barnahus baliabidea inplementatzeko talde eragilean parte hartu du, hauekin batera:

- Justizia Departamentua: Justiziako Gizarte Zerbitzua eta Nafarroako Auzitegi medikuntzaren eta Zientzia Kriminalistikoen Institutua (NAMZKI)
- Eskubide Sozialetako Departamentua: Adingabeen eta familiaren Araubide Juridikoaren Atala eta Haurren, nerabeen eta familiaren Zuzendariordeak
- Osasun Departamentua: Pediatria eta larrialdi pediatrikoak, oinarritzko laguntza eta osasun mentala, ginekologia
- Hezkuntza Departamentua: Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzua eta Hezkuntzako Ikuskaritza
- Polizia kidegoak: Foruzaingoa, Guardia Zibila, Polizia Nazionalea eta Iruñeko udaltzaingoa
- Oinarritzko gizarte zerbitzuak
- Haurrei eta nerabeei laguntzeko taldeak (HNLT)
- Adimen desgaitasuna duten biktimei laguntzeko unitatea (UAVDI, gaztelaniaz)
- Iruñeko Abokatuen Elkargoa
- NFKko fiskaltza nagusia
- Epailera

2025ean, NAPIn 28 orduko aurrez aurreko prestakuntza eman zitzaion talde eragileari. NABIk eta SIAIz parte hartu zuten, eta esku-hartzea eta sexu indarkeriaren biktimei diren emakumeentzako baliabide espezializatuak landu zituzten, genero ikuspegia kontuan hartuta.

Halaber, talde eragileari eta pertsona interesgarriei 30 orduko online prestakuntza eskaini zitzaion: “Haurren kontrako sexu indarkeriari eta Barnahus ereduari buruzko prestakuntza”.

5.9. Tokiko protokoloak

2025ean, Tafallako protokoloa sinatzean, Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean jarduteko eta koordinatzeko 25 tokiko protokolo zeuden: 24 NABiren [Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean jarduteko eta koordinatzeko tokiko protokoloak prestatzeko gidaren](#) eta Iruñeko udalaren protokoloaren arabera sinatuak, gida argitaratu aurrekoak. 2025ean, Bortzirietako eta Oltzako protokoloak egiten hasi dira.

6. JARDUKETAK, ARLOKA

6.1 NABI-REN JARDUKETAK

6.1.1 Sentsibilizazioa, prebentzioa eta ikerketa

Justizia eta Generoa jardunaldiak

Urriaren 15, 16 eta 17an, NABik eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak antolatutako *Justizia eta Generoa* jardunaldiak egin ziren Iruñean. Epailetzako, magistraturako eta beste eragile juridiko eta instituzional batzuetako ehun bat profesionalak hartu zuten parte, justiziaren arloan genero ikuspegia txertatzeko. Haren helburua emakumeen kontrako indarkeriaren arloko analisia eta hausnarketa sustatzea izan zen, biktimei eta bizirik atera direnei eremu judizialek ematen zaien arreta hobetzeko.

Justizia berdinzaleago, isuririk gabeko eta emakumeen giza eskubideekin konprometitutako baterantz aurrera egiteko konpromiso partekatuan oinarritzen dira jardunaldiak. Horretarako, beharrezkoa da emakumeen kontrako indarkeria eragiten duten egiturazko faktoreak ezagutzea eta justiziako profesionalak etengabeko prestakuntza izatea.

Hauek izan ziren hizlariak: Vicente Magro Servet, María Naredo Molero, Elisa García Mingo, Joaquín Delgado Martín, José Julián Huarte Lázaro, Montserrat Comas D'Argemir Cendra, Laura Berja Vega, Carlos Pascual Alfaro, Altamira Gonzalo Valgañón, Ane Fadrique Blanco, Teresa Peramato Martín, Sonia Vaccaro Ceccarelli, Cristina Eseverri Soto, María Eugenia Prendes, Leticia Jericó Ojer, Eduardo de Porres Ortiz de Urbina, Cristina Lopes Dos Santos eta Izaskun Gartzaron Zudaire.

Desgaitasuna duten emakumeen kontrako indarkeriak: arreta irisgarri eta inklusiborantz aurrera eginez jardunaldiak

Desgaitasuna duten emakumeen kontrako indarkeriak arazo ikusezina izaten jarraitzen du, anitzetan profesional eta kaltetutako emakumeentzat ere bai. Desgaitasuna duten emakumeen zaurgarritasuna areagotu egiten da oztopo fisiko, komunikatibo eta sozialen ondorioz, eta horrek zaildu egiten du salaketa jartzea edo harrera baliabideak eskuratzea.

Desgaitasuna duten emakumeei arreta integrala eta egokitua emateko beharrak, erronkak eta hobekuntzak aztertzeko, jardunaldi hauek egin ziren urriaren 1ean, desgaitasunaren arloko profesionalen, emakume elkarteen eta erakundeen zuzenduta.

Desgaitasuna, generoa eta indarkeria hitzaldiarekin eman zitzaizen hasiera jardunaldiei.

Marta Valencia Betrán-ek (CEMUDIS, Confederación Estatal de Mujeres con Discapacidad elkarteko presidenteak) *Una intersección invisibilizada (Ikusezin bihurtutako elkargune bat)* eman zuen. Ondoren, Sexu indarkeriei arreta integrala emateko zentroko (SIAIZeko) Irisgarritasun unibertsalerako plana eta Desgaitasuna duten emakumeentzako harrera protokoloa irisgarria aurkeztu ziren, eta, azkenik, Ana Arnedo Villanueva, Montse De la Fuente Hurtado, Ainhoa Trébol Urra eta Mari Luz Sanz Escuderok *Irisgarritasuna eta interseksionalitatea arreta emateko ezinbesteko balio gisa* mahai inguruan parte hartu zuten.

Nafarroako emakume gazteen kontrako sexu indarkeriari buruzko I. azterlanaren aurkezpena

Urtarrilaren 27an, Rut Iturbide Rodrigo, Leonor Canals Botas, Nayaded Labbé Aravena eta Leire Martínez Murillok [Nafarroako emakume gazteen aurkako sexu indarkeriari buruzko I. azterlana](#) aurkeztu zuten. Azterlan horretan, sexu indarkeria eta horrek azken urteetan izan duen bilakaera aztertzen dira: kontzeptua, ezaugarriak, erroak, dinamikak, ondorioak, esku-hartzeko ikuspegi teorikoak, etab. Aldi berean, sexu indarkeria prebenitzeko zein detektatzeko eta biktimak babesteko, artatzeko eta suspertzeko egon daitezkeen beharrak, arazoak, eskaerak eta jardunbide egokiak mapatzen dira, berrikuspen bibliografiko eta dokumentalaren bidez, dauden datuak analizatzearen bidez eta hausnarketarako espazio kolektiboak sortzearen bidez (baliabide espezifikoetako profesionalekin eta emakumeekin lan egiten duten taldeak). Azkenik, esku-hartzeko proposamen posibleei buruzko dekalogo bat ezartzen du, batez ere adostasun sexualari eta horri heltzeari, maskulinitate hegemonikoak deseraikitzeari eta emakumeen ahalduentzeari dagokienez.

Ezkontza behartuei buruzko prestakuntza txikia

Maiatzaren 16an, Nafarroako ezkontza behartuak prebenitzeko eta artatzeko diziplinarteko taldeak prestakuntza txiki bat jaso zuen. Ariadna Vilà Castelló emandako prestakuntza gai hauei buruzkoa izan zen: *Kataluniako Generalitatearen Ezkontza behartuei heltzeko eredu (2023)*, Kataluniako Generalitateko Ezkontza behartuen batzordearen esparruan egindako lana, etorkizunerako erronkak eta ezkontza behartuak desagerrarazteko bidean aurrera egiteko ikaskuntzak eta gomendioak.

Emakumeen mutilazio genitalaren inguruko prestakuntza txikia

Maiatzaren 16an, prestakuntza txiki bat jaso zuen Emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko eta artatzeko diziplinarteko taldeak, *Nafarroako Emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko eta haren aurrean jarduteko protokoloa eguneratzeari buruzkoa*. María Flamarique Esparza (proiektuen koordinatzailea), Fátima Djarra Sani (esku-hartze

teknikaria) eta Farmata Ly Watt-en (laguntzako teknikariaren) eskutik, Nafarroako Médicos del Mundo elkarteak hirurak.

Baliabide espezializatuen aurkezpenak

9 saio egin dituzte NABIk eta SIAIZek indarkeriari buruzko araudia eta emakumeen kontrako indarkeriaren arretan espezializatutako baliabideak aurkezteko:

- Baztan, Malerreka eta Bortzirietan, tokiko koordinazio mahaien esparruan. Saio hori Iruñerriko eta Iparraldeko eremuko GIBOATEk ere eman zuen: 24 emakume eta 5 gizon bertaratu ziren.
- Iruñeko udalak eta ELUZek elkarrekin: 27 emakume eta 5 gizon bertaratu ziren.
- Barnahusen talde eragileak: 27 emakume eta gizon bat bertaratu ziren
- Bi orduko 6 saio egin dira 112ko operatzaileei eta areto buruei baliabide espezializatuak aurkezteko. SIAIZeko hezitzaile batek eta NABiko langile batek egin dituzte aurkezpenak. Guztira 61 lagunek hartu dute parte (44 emakumek eta 17 gizonek).

Hitzarmena Acción contra la Trata elkartearekin

NABIk Acción contra la Trata irabazi asmorik gabeko erakundearekin hitzarmen bat sinatu zuen “Mujeres supervivientes: del proceso personal a la transformación social” programarako. Hiru ildo ditu:

- Kulturarteko bi bitartekari trebatzeko bi ibilbide diseinatu eta gauzatzea, gai interesgarriak barne hartuta, hala nola sexu indarkeriak, prostituzioa eta sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketa, eskubideei eta lidergoari buruzko legedia; prestakuntza etengabekoa da, eta lan tresna praktikoak, informatika eta esku-hartze sozialerako trebetasunak landuko dira.
- Las Poderosas taldea indartzea, ikusaraztea eta sentsibilizatzea. Sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketaren aurkako borroka; bizirik ateratakoak suspertzeko prebentzioa eta laguntza, banakako laguntzaren, jardueren, tailerren eta prestakuntzarako zein elkarri laguntzeko topaketen bidez, eta ahaldunderako eta gizarte eraldaketarako arte jarduerak.
 - 588 aldiz eman zaie banakako arreta 82 emakumeri, erregistroen arabera
 - 26 lehen harrera
 - 8 prestakuntza saio
 - 15 taldeko jarduera parte hartzaile

- Sentsibilizazioa, prebentzioa, parte hartzea eta sareko lana:
 - Eraldaketaren eragileekin 6 topaketa parte hartzaile
 - Herritarrentzako 6 sentsibilizazio jarduera
 - 16 boluntario prestatu dira
 - Hedabideekin harremanak

Hitzarmena Médicos del Mundo elkartearekin

NABIk Médicos del Mundo elkartearekin, EMGren aurkako borrokan Nafarroan erreferentzia den erakundearekin, hitzarmen bat sinatu zuen ekintza hauek garatzeko:

- Afrikar jatorriko emakume taldeak identifikatzea eta finkatzea, indarkeria matxistaren adierazpenen prebentzioan lan egiteko.
- Afrikako emakumeak trebatzea, afrikar komunitatean eraldaketaren eta lidergoaren eragile bihurtzeko.
- Emakume taldeak tresnaz hornitzea, indarkeriak identifikatu eta horiei aurre egiteko.
- Afrikar komunitateko gizonen artean zenbait tresna sustatzea, pribilegio posiziotik emakumeen kontrako indarkeriaren adierazpenak identifikatzeko.
- Bitartekaritza taldea etengabe prestatzea, proiektuan esku-hartzean trebatzeko.
- Profesionalei prestakuntza ematea, emakumeen mutilazio genitalaren prebentzioa lantzeko.
- Nafarroako herritarrak emakumeen mutilazio genitalari buruz sentsibilizatzea.
- Esku-hartze sozialak egitea, eskubideen titularren parte hartzea eta indarkeria egoeren arreta bultzatzera bideratuak.

Sentsibilizazio kanpainak

Urtero bezala, azaroaren 25eko eta jaietako kanpainak egin dira.

Egunerokoan ere ezkututzen da indarkeria

Azaroaren 25a (emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna) zela-eta, kanpaina helburu hauekin planteatu zen:

- Emakumeen kontrako indarkeria soutilak agerian jartzea, eraso fisikoak bezain agerikoak edo zuzenak ez diren baina haien bizitzetan eragin nabarmena duten indarkeria motak.
- Indarkeria mota ezkutu horiek indarkeria mota larrienen oinarrian kokatzea.
- Generoan oinarrituta emakumeak kontrolatzeko, gutxiarazteko edo baztertzeko portaera, jarrera eta diskurtso normalizatuak eta itxuraz kaltegabeak ikusaraztea.

Jaietako kanpaina. Nafarroan, gozatu, partekatu eta errespetatu.

Kanpaina honen helburua harreman berrietan edo lehendik ezarrita daudenetan tratu onak duen garrantzia nabarmentzea izan zen, normalean larritzat jotzen ez diren indarkeriak ikusaraztea (hala nola beste pertsonak nahi ez duen sexu jardura batean tematzea edo prebentzio neurririk ez erabiltzeko presioa egitea), indarkeria horiek ezagutaraztea eta geldiaraztea, eta horretarako komunikazioa, errespetua eta plazera sustatzea. NABI, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua (NOPLOI), Nafarroako Gazteriaren Institutua (NGI) eta Hezkuntza Departamentua lankidetzan aritu dira indarkeria sexistak prebenitzeko eta espazio zein harreman guztietan tratu onak sustatzeko. Departamentu bakoitzak bere esparruan zabaldu zuen kanpaina.

SIAIZ baliabidea ezagutzera emateko kanpaina

SIAIZ (Sexu indarkerien arreta integraleko zentroa) ireki zeneko lehen urteurrenaren inguruan, baliabidea bera zabaltzeko kanpaina bat jarri zen abian. SIAIZek 16 urtetik gorako emakumeak artatzen ditu, sexu indarkerien biktimak edo haietatik bizirik atera direnak, hala indarkeria hori gaur egun jaso dutenak, nola iraganean jasan zutenak. Baliabide integrala da, espezializatua eta diziplina anitzekoa, 24 orduz eskuragarria, urteko egun guztietan.

6.1.2 Detekzioa, babesa, arreta eta erreparazioa

6.1.2.1. Baliabide espezializatuen kudeaketa: Harrera baliabideak, Genero indarkeriaren biktimei osoko arreta emateko taldeak (GIBOATek), Sexu indarkeriei arreta integrala emateko zentroa (SIAIZ)

Harrera baliabideak

Indarkeria egoeran dauden emakumeei arreta emateko harrera baliabideak larrialdietako zentroa, babes etxea eta 5 egoitza etxebizitza dira. Doakoak dira eta haiek erabiltzeko ez da salaketarik egin behar.

Hauek dira haien helburuak:

- Aldi baterako babesa eta laguntza emozionala ematea emakumeen kontrako indarkeriaren biktimei diren emakumeei, bakarrik edo eraso jasan duen emakumearen guraso ahalaren, zaintzaren edo jagoletzaren pean dauden seme-alaba adingabeekin, indarkeria hori dela-eta babesgabetasun egoeran badaude eta baliabideak erabiltzeko baldintzak betetzen badituzte (larrialdia, beharra). Helburu honetarako, bizitokia eskaini eta segurtasuna, fisikoa zein psikologikoa, zein konfidentzialtasuna bermatzen zaie.
- Orientazioa, aholkularitza eta akonpainamendu sozial intentsiboa ematea, mota horretako baliabideetan hartutako pertsonen dituzten beharren arabera.
- Hartutako emakumeei beren egoera pertsonalari buruz hausnartzeko eta beren etorkizuneko bizimodua nora bideratu erabakitzeko espazio eta bolada seguru bat ematea, beren egoera pertsonalean eta familiakoan behar eta nahi dituzten aldaketei ekin eta aldaketa horiek posible egiten dituzten erabakiak hartu ahal izateko.

2025ean, harrera baliabideek 111 emakume eta 101 adingabe (57 neska eta 44 mutil) artatu dituzte, eta 4 emakumek errepikatu dute egonaldia; horrek erakusten du badaudela babes sistemara itzultzea eskatzen duten egoera bereziki zaurgarriak.

2024ko datuekin alderatuta, jaitsi egin da artatutako emakume kopurua, 133tik 111ra. Adingabeen kopuruak ere behera egin du, 121etik 101era. Murritzeta horrek ez du esan nahi konplexutasun txikiagoa duenik esku-hartzeak; izan ere, batzuetan, txandakatze gutxiago dagoenean, prozesuak luzeagoak edo egoerak egiturazko zaurgarritasun handiagokoak dira.

Hauek dira harrera baliabideak:

Larrialdietako zentroa (7 eguneko egonaldia, hilabetera arte luza daitekeena).

2025ean 171 pertsona artatu dira larrialdietako zentroan. Urtean zehar, 94 emakume gelditu dira baliabidean, eta horiei urtarilaren 1ean baliabidean zeuden 5 emakume gehitu behar zaizkie. Horiekin batera, 72 adingabe gelditu dira (39 neska eta 33 mutil).

2025ean 171 pertsona artatu dira larrialdietako zentroan. Urteko batez besteko okupazioa 15,67 pertsonakoa izan da, eta horrek modu iraunkorrean gaititzen du baliabidearen gaitasuna. Gainokupazioko 211 egun erregistratu dira, hau da, urteko % 55,97. Horrek esan nahi du egiturazko presio egoera finkatu egin dela.

Hileroko analisiak erakusten du uztailetik aurrera anitz handitu dela okupazioa, eta balio altuenak irailean eta urrian izan dira, egunean 25 pertsona baino gehiagoko batezbestekoarekin; horregatik, hotel baliabideak aktibatu behar izan dira (582 pertsona edo gau).

- Emakumeen % 31k 30 eguneko egonaldia gaititzen du.
- Emakumeen % 64,6k 40 urte baino gutxiago du.
- Artatutako emakumeen % 68,7 Espainiatik kanpo jaio zen.
- Artatutako emakumeen % 38,4k gaztelania ez den beste ama hizkuntza bat du.
- Larrialdietako zentrori iristen den emakumeen % 72,7k ez du diru sarrera propiorik.
- % 73,8ren prestakuntza maila lehen hezkuntzakoa edo baxuagoa da.
- Emakumeen % 42,4k seme-alabak ditu ardurapean.
- Emakumeen % 29k salaketa jartzen du.
- Emakumeen % 11,7 erasotzailearekin itzuli ziren ekitaldi berean.

Babes etxea (6 hilabeteko egonaldia, 9 hilabetera arte luza daitekeena).

2025ean, 10 emakume eta 17 seme-alaba (11 neska eta 6 mutil) artatu dira; guztira, 27 pertsona. Eguneko batez besteko okupazioa 5,01 tokikoa da eta baliabideak 12 toki ditu egituraz, hau da, urteko batez besteko okupazioa % 41,7 da. 2025ean baliabidean gelditu diren familia unitate guztiak larrialdietako zentrotik bideratu dira.

Emakumeen batez besteko adina 33,4 urte da.

Artatutako emakumeen % 70 Espainiatik kanpo jaio zen.

Egonaldiaren batezbesteko erreala 5,2 hilabete ingurukoa da emakume bakoitzeko (gutxi gorabehera 2,8 hilabete emakume bakoitzeko urte naturalaren barruan).

Okupazioaren batezbesteko erreala % 41,7 da.

- Emakumeen % 80k 40 urte baino gutxiago du.
- Artatutako emakumeen % 70 Espainiatik kanpo jaio zen.
- Emakumeen % 90ek seme-alabak ditu ardurapean.
- Emakumeen % 100ek prestazio ekonomiko aktiboak ditu.
- Emakumeen % 90ek salaketa jartzen du, eta urrutze agindua dute indarrean.
- Ez dira erasotzailearekin harremanetan jarri, erregistroen arabera.

Egoitza etxebizitzak (urtebeteko egonaldia, 2 urtera arte luza daitekeena).

2025ean, 6 emakume eta 13 adingabe (8 neska eta 5 mutil) artatu dira; guztira, 19 pertsona, denak babes etxetik bideratuak. Egonaldi gehienak 9 hilabete baino luzeagoak dira. Batez besteko okupazioa % 91,8 izan da.

- Emakumeen batez besteko adina 37,7 urte da.
- Artatutako emakumeen % 50 nafarrak izan dira.
- Batez beste, 2,5 adingabe daude familia unitateko
- Emakumeen % 50ek lana izan dute; gainerakoak langabezia aktiboan daude eta prestakuntza ibilbideak dituzte.
- Lanerako barne protokoloak dituzte harrera baliabideetan, eta erabiltzaileen gogobetetze maila ebaluatzen da.

2025ean harrera baliabideetan egindako hobekuntzen artean hauek nabarmentzen dira:

- Segurtasun indar eta kidegoek bete beharreko bideratze fitxa prestatu da, Foru Legean adierazitako aplikazio eremua jasotzen duena (Nafarroan bizi diren emakumeak edo Nafarroan gertatu den indarkeriaren biktimak), eta autonomia erkidegoen artean bideratzeko protokolorako esteka. Era berean, beharrezkoak ez diren administrazio- eta lan-egoerari buruzko elementuak kendu dira, batzuetan emakumeak deseroso sentiarazten dituztelako.
- Indarkeria matxistei eta sexualitateari buruzko tailerrak eman zaizkie baliabideen erabiltzaileei, haien egoeraren egitura hobeki ulertzeko eta errua kentzeko.
- Esku-hartze prozedurei dagokienez, banakako esku-hartzeak egiten dira, emakumeei laguntzeko taldeak ezarritako helburu espezifikoak lortzera bideratuak.

Eta zailtasunei dagokienez:

- Guneak ez dira egokiak artatutako emakume eta adingabe kopuruarentzat. Egiturazko gainokupazioa dago.
- Gaztelania ez dakiten emakumeekin esku hartzea zaila da. Dualiak ematen duen zerbitzua oso mugatua da eta ez du uzten arreta psikologikoa egiten.
- Zaila da polizia-baliabide edo -kidego batzuekin esku-hartzeak egitea, eta errazagoak balira, lana anitz arinduko lukete. Zehazki, bideratze fitxa betetzeko zailtasunak aipatzen dira.

Baliabideetako langileek adingabeei eta esku-hartzeei buruzko prestakuntza jaso dute, 12 ordukoa, eta indarkeria matxistaren biktimentzako neurri judizialei buruzko beste prestakuntza bat ere.

Sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketaren biktima diren edo prostituzio testuinguruetan dauden emakumeentzako arreta integraleko harrera baliabideak

Sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketaren biktima diren edo prostituzio testuinguruetan dauden emakumeentzako arreta integraleko harrera baliabideak ditugu Nafarroan.

Sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketaren biktima diren emakumeentzako aldi baterako bizitokian 2 toki daude, eta prostituzio testuinguruetan dauden emakumeentzakoan, berriaz, 7 toki.

2025ean, giza salerosketaren biktima izan diren 5 emakume artatu ditugu, eta prostituzio testuinguruetan zeuden 11. 2 adingabe artatu ditugu. Batez beste, emakumeak urtebete gelditzen dira.

Hobekuntza hauek nabarmentzen dira baliabideetan:

- Foruzaingoak Itxaropen Gunek giza salerosketaren biktima diren emakumeei arreta ematen egindako lana aitortu du, eta, hala, kolektibo hori ikusarazi du.
- Oinarritzko gizarte zerbitzuei (Buztintxuriko oinarritzko unitatea) eta ELUZI informazioa emateko eta sensibilizatzeko saioak egin ditugu.

Hauek dira aurkitutako zailtasun batzuk:

- Ezin dituzte hartu praktikak egin nahi dituzten ikasle guztiak.

Prestakuntza:

- *Zaurgarritasun egoeran daudenei laguntzeko tresna psikologikoak*, 18 ordukoa, Zerbitzu Digitalen eskutik, apirilaren 29tik ekainaren 16ra. Aurrez aurreko modalitatea. Talde osoak parte hartu du.
- *Genero indarkeriaren biktimak izan diren emakumeekin esku-hartzea*. 200 ordu. Nebrija Unibertsitateak emana. Programako (emakumezko) hezitzaile batek eginga.
- *Pertsonen salerosketari buruzko alde anitzeko erdi mailako prestakuntza*. 55 ordu. Gurutze Gorriak emana. Programako (emakumezko) hezitzaile batek eginga.
- *Prostituzioari eta giza eskubideei buruzko eztabaidan jarrera hartzea* ikastaroa. 25 ordu. Diakonotza eskolak emana. Programako (emakumezko) hezitzaile batek eginga.

Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko taldeak (GIBOATek)

Ingurune irekian esku-hartzeko baliabidea da, eta bere helburua genero indarkeriako egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden emakumeei informazioa ematea, haiek bideratzea eta modu integralean artatzea da. Talde horiek emakumeei behar duten informazioa, aholkularitza eta esku-hartze psikosoziala emateko baliabideak dituzte. Era berean eta hala badagokio, emakumeen eta beren ardurapeko familia unitateen lege, lan, ekonomia, osasun eta babeseko beharrak tratatzen eta horiei heltzen espezializatutako sektore baliabideei laguntzen diete, eta horietara bideratzen dituzte, indarkeria egoera dela-eta salaketa jarri duten kontuan hartu gabe.

Hauek dira, besteak beste, taldeen eginkizunik aipagarrienak:

- Indarkeria egoeran dauden emakumeei eta haien seme-alabei informazioa, orientazioa eta diziplina arteko arreta (soziala, psikologikoa eta hezkuntzakoa) ematea.
- Babes baliabideetarako (egoitzakoetarako eta egoitzaz kanpokoetarako) zein gizarte zerbitzuei loturiko baliabide orokorretarako sarbidea kudeatzea; GIBOATek mantentzen du kasuaren erreferentzia.
- Emakume bakoitzaren suspertze ibilbidearen jarraipena egitea, beste baliabide batera bideratzetik harago, betiere jasandako indarkeriarekin zerikusia badu.
- Sentsibilizazio eta prebentzio programetan laguntzea eta aholku ematea.
- Indarkerian esku hartzen duten profesional guztientzako aholkularitza eta laguntza ekintzak garatzea, indarkerian espezializaturik ez dauden zerbitzuetatik.

Laguntza juridikoa kanpotik ematen da, ELJEZen bidez.

Lau GIBOAT daude: Tuterako eskualdea, Tafallako eskualdea, Lizarrako eskualdea eta Iruñerria eta Iparraldeko eremua.

Sentsibilizazioa, prebentzioa eta ikerketa

M8ko, A25eko, giza salerosketaren, jaietako eta emakumeen mutilazio genitalaren kanpainak zabaltzeko dira, eta beste hainbat ekintza egin dira data horien inguruan.

14/2025 Foru Legearen II. Ekintza Planaren berrikuspenean parte hartu da, bai eta Tuterako emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean jarduteko eta koordinatzeko tokiko protokolo baten prestaketa berrikusteko prozesu parte hartzailean eta Emakumeen mutilazio genitalerako protokoloaren berrikuspenean ere

Tafallan, GIBOATek 3 informazio saio egin zituen GLTak antolatutako lantegietan parte hartzen duten emakumeei taldea hurbiltzeko, eta, hala, lantaldeko profesionalak eta haren ekintzak ezagutzeko.

Hobekuntza gisa, profesionalak elkar ezagutzea nabarmentzen da, eta zailtasun gisa, GIBOATeko eskaria eta langileen eskasia etengabe handitzen denez, lehenengo emakumeei banakako arreta ematen zaiela, eta horrek talde- eta komunitate-jarduera eta sentsibilizazio- eta prebentzio-lanak egitea eragozten du.

Detekzioa, babesa, arreta eta erreparazioa

Taula hauetan, GIBOATetan ematen den arreta mota eta zer indarkeria artatzen diren zehazten da.

EMAKUME ETA SEME-ALABENTZAKO ARTATZE KOPURUA, ESKUALDEKA

ARTATZE MOTA	Iruñerria eta Iparraldeko eremua	Tutera	Lizarra	Tafalla	Guztira
Unean uneko aholkularitzak	113	248	146	110	617
Artatzeak	185	182	94	84	545
Artatze psikologikoak	120	96	58	45	113
Artatze juridikoak	0	49	49	15	113
Gizarte langintzako artatzeak	150	128	85	68	431
Gizarte hezkuntzako artatzeak	83	62	55	17	217
Neskentzako artatzeak	14	7	2	3	26
Mutilentzako artatzeak	2	4	2	1	9
Senideentzako/Ingurukoentzako artatzeak	5	6	7	6	24

INDARKERIA MOTA, EREMUKA (%)

GIBOAT	Fisikoa	Psikologikoa	Sexuala	Ekonomikoa
Tafallako eskualdea	29,41	45,09	15,68	9,80
Lizarrako eskualdea	33,33	30,39	17,15	19,11
Tuterako eskualdea	30,83	39,58	16,25	13,33
Iruñerria eta Iparraldeko eremua	24,24	42,72	16,85	16,16
Batezbestekoa	29,45	39,44	16,48	14,60

GIBOATek emakumeen kontrako indarkeriaren arloan nahitaez bete beharreko barne protokolo bat dute, eta erabiltzaileen gogobetetze maila ebaluatzen da. Prozedurazko eskuliburu bat ere badago. Ez dago jarduna ebaluatzeko prozedurarik.

Emakumeen kontrako indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabei arreta emateko barne protokolo bat sortu da GIBOATetan.

Hauek dira hobekuntza batzuk:

- Hainbat arlo ezagutzea, besteak beste, polizia, osasuna, etxebizitza eta enplegua, sareko lana eta zuzeneko kontaktua errazteko.
- Hainbat erakunderekin koordinatzea, besteak beste COCEMFerekin, desgaitasunen bat duten emakumeei arreta emateko.
- Adingabeen babesgabetasun egoerak Haurren programari jakinaraztea eta harekin koordinatzea, babesgabetasunaren adierazleak daudenean.
- Hezkuntza sistemarekin/orientatzaileekin koordinatzea: kontsulta teknikoak egiten dituzte GIBOATekin kasuak lantzeko.
- Tafallako eskualdeko GIBOATen 2 tailer egin dira, kontu hartze terapeutikoan zein hezkuntzazkoan egindako prozesuetan detektatutako emakumezko erabiltzaileen eskaera eta beharrei erantzuten dietenak: *Resiliencia* tailer psikologikoa eta *Nola eraikitzen ditugu gure bikote harremanak?* hezkuntza tailerra. Erabiltzaileen harrera oso ona izan dute biek.

Zailtasun eta hobetu beharreko arlo batzuk:

- Beharrezkoa da GIBOATek desgaitasuna duten emakumeei buruz duten ezagutza zabaltzea, eta horretarako hainbat elkarterekin harremanetan jarri eta sareko lan egin behar da.
- Kasuak gainbegiratzea garrantzitsutzat jotzen da.
- DUALIA erabiltzen den arren, batzuetan hobe litzateke interprete propio bat izatea.
- GIBOATetan profesional gehiago behar dira. Talde ibiltariak dira, ez dute bulegoan bakarrik lan egiten, baizik eta emakumeak bizi diren herrietara joaten dira, baliabidea haiengana eramateko.
- Osasun etxeekiko, hezkuntza zerbitzuekiko eta baliabide komunitarioekiko koordinazioa indartu behar da.
- Emakume gazteen eta 65 urtetik gorakoen detekzioa handitzea.
- Sare sozialak sentsibilizaziorako eta sarbiderako tresna gisa erabiltzen jarraitu behar da.

Prestakuntza

Jarraian, GIBOATetako langileek jasotako prestakuntzak zerrendatzen dira.

Iruñerriko eta Iparraldeko eremuko GIBOATeko langileek (denak emakumezkoak) hainbat prestakuntza jaso dituzte: *Indarkeria matxista jasaten duten emakumeei eta adingabeei laguntzea, indarkeria prebenitzea eta detektatzea, genero ikuspegitik eta interseksionalitatetik* (16 ordu), *Ziberindarkeria matxista* (5 ordu), *Adingabeak instrumentalizatzea* (10 ordu), *Polivagal teoria* (10 ordu) eta *Dibortzio konplexuak eta genero indarkeriaren eragina emakume zein profesionalengan. Gorpuztasuna* (5 ordu), *Emakumeen kontrako indarkerian espezializatzea. Banantze eta dibortzio prozesuetan murgilduta daudelako gizarteratu behar diren emakumeak* (5 ordu), *Emakume gazteen kontrako sexu indarkeria, Esku-hartzeen inplikazio profesionala eta ondorioak. Lotura harremanak* (10 ordu) eta *Emakumeen mutilazio genitala*.

Tuterako GIBOATeko gizarte-langileek (denak emakumezkoak) 44,5 prestakuntza ordu jaso dituzte, hainbat gairi buruz: Ikuspegi dialogikoa, Pertsonak ardatz dituen arreta eredua, Sexu erasoa: aldez aurreko frogak, Dibortzio gatazkatsuak eta gorpuztasuna, Giza salerosketa eta immigrazioa, eta Gazte talde biolentoak. Genero indarkeriari buruzko jardunaldi juridikoetan eta Emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko VIII. jardunaldian parte hartu dute.

Psikologoek (denak emakumezkoak) 53,5 prestakuntza ordu jaso dituzte, hainbat gairi buruz: *Ikuspegi dialogikoa, Polivagal teoria, Dibortzio gatazkatsuak eta gorpuztasuna, Begirada sistemikorako sarrera, Adingabeak instrumentalizatzea, Suizidio jokabideak eta bere buruaz beste egitea eta Gazte talde biolentoak*. Horrez gain, Sexu esplotazioaren biktima diren haur eta nerabeak oso-osorik suspertzeko akonpainamendu sozial eta psikologikoa emateko programan parte hartu dute, haurrak babesteko sistemaren baitakoan.

Gizarte-hezitzaileak (emakumezkoa) 22 prestakuntza ordu jaso ditu, bi gairi buruz: *Ikuspegi dialogikoa eta Eragina eta gorpuztasuna*.

Lizarrako GIBOATeko langileek (denak emakumezkoak) prestakuntza hauek jaso dituzte (60 ordu): *Eragina eta gorpuztasuna, Indarkeria kasuak koordinatzea, Haurren aurkako sexu indarkeria. Barnahus eredua, Jazarpen eta indarkeria protokoloak hezkuntza sisteman, Desgaitasuna duten emakumeen kontrako indarkeria, Sexu indarkeria eta haur pornografia eta Gazteak eta harreman afektibo sexualak*.

Tafallako gizarte-langileak (emakumezkoa) 74 prestakuntza ordu jaso ditu, gai hauei buruz: *Genero ikuspegia duen justizia, Emakumeen kontrako indarkeria Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako koordinazio unitatea, Haurren aurkako sexu indarkeria. Barnahus eredua eta Mundu birtualeko arriskuak*.

Tafallako psikologoak (emakumezkoa) 223 prestakuntza ordu jaso ditu, hainbat gairi buruz: *Desgaitasuna duten emakumeen kontrako indarkeria, Genero indarkeriaren biktimak izan diren emakumeekin esku-hartzea eta Begirada sistemikoa eta lotetsia terapian.*

Iruñerriko eta Iparraldeko eremuko GIBOATek hainbat prestakuntza eman dizkie tokiko koordinazio mahaietako kideei, 2 eta 8 ordu artekoak, berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren inguruan.

Gizarte-langile eta koordinatzaileak tailer bat egin zuen Tuterako gizarte zerbitzuen egoitzan, zehazki Tuterako enplegu sozial babestuan, guztira 14 emakumerekin. ESBko gizarte-langileak (emakumezkoa) egin zuen eskaria, programan emakumeen kontrako indarkeriako kasuak detektatu zirelako.

Hobekuntzetako bat esku-hartzeko estrategiak zabaltzea da, eta zailtasunetako bat, lankidetzan ari diren profesionalen prestakuntza ematea.

Erantzun koordinatua

GIBOATek lurraldeetako tokiko koordinazio mahaietan parte hartzen dute, bai eta Emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko eta artatzeko diziplinariako taldean eta Ezkontza behartuak prebenitzeko eta artatzeko diziplinariako taldean ere.

Beste zerbitzu komunitario batzuekin, beharraren arabera egiten da koordinazioa, bi noranzkoetan.

GIBOATek hobekuntza hauek nabarmentzen dituzte:

- Arreta goiztiarrarekin koordinatzea, errazagoa izateko baliabidea ezagutzea eta erabiltzea.
- Hizkuntza oztopoak dituzten emakumeei arreta emateko, DUALIA, Gurutze Gorria, Médicos del Mundo eta Acción contra la Trata elkarteetako kultura bitartekarien laguntza du, NABIREkin sinatutako hitzarmenen esparruan. Gainera, emakume magrebtar batek kultura arteko mentore lanak egiten ditu hizkuntza arabiarreko emakumeentzat. Mentorea indarkeriatik bizirik atera zen eta taldeak artatu zuen, eta haren oraingo ekarpena oso positiboa izan da, erraztu egin baititu harrera eta kontu hartzeko prozesuak. Dena dela, GIBOATek interprete ofizial bat behar du.
- Adingabeentzako arretari dagokionez, HNLTKin (Haurrei eta nerabeei laguntzeko taldearekin) koordinazioa egiten da, indarkeria prebenitzeko adierazleen bidez.
- Kasu batzuetan, arreta guñeak eta itxarongelak hobetu dira, baita ahalduntzea, ingurunearen ezagutza eta aisialdia lantzeko guñe seguru eta atseginak ere.

Bestalde, zailtasun hauek daude:

- Foru Komunitatean emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean sentsibilizazioa eta prestakuntza egiteko baliabideak mugatuak dira.
- GIBOATetan txandakatze anitz egiten da eta langile gutxi daude.
- Esparru judizialeko ordezkariak eta ELJEZek ez dute tokiko koordinazio mahaietan parte hartzen.
- Zaila da hezkuntza- eta osasun-sistemetatik biktimak GIBOATera premiaz bideratzeko protokoloak jarraitzea.
- Emakumeen kontrako indarkeriaren aurka lan egiten duten baliabideek ez dute datuak biltzeko metodologia komunik, eta ez dituzte beti datu mota berdinak biltzen.
- Emakumeak baliabideetatik ateratzean, zaila zaie etxebizitza eta enplegua lortzea, nahiz eta funtsezkoak diren haiek suspertzeko eta integratzeko. Gizarte sarea, familia eta adingabeen eskolatzeko ere funtsezkoak dira horretarako.
- Ez dago ibilbide eta prestakuntza espezifikorik desgaitasun, prostituzio eta giza salerosketa kasuei arreta emateko.

Sexu indarkeriei arreta integraleko zentroa (SIAIZ)

SIAIZ indarkeria sexualaren 16 urtetik gorako biktima diren eta hartatik bizirik atera diren emakumeei arreta ematen dien baliabide espezializatua da. Eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan ematen du arreta, etengabe.

Abokatu, psikologo, gizarte-langile eta gizarte-hezitzailez (denak emakumezkoak) osatutako talde batek eskaintzen die arreta erabiltzaileei, haien familiari eta behar duten inguru hurbileneko pertsonari.

Sentsibilizazioa, prebentzioa eta ikerketa

2025ean, SIAIZek ekintza hauek egin ditu baliabidea aurkezteko eta herritarrek sentsibilizatzeko:

- CERMINen aurkezpena: 13 emakume
- Aurkezpenak: Guatemalako Osasun mentaleko ministerioaren programako bi emakumezko teknikariren bisita, psikiatra eta mediku bana. Eta El Salvadorreko Osasun ministerioko genero unitatearen bigarren bisita, SIAIZek egiten duen lana bertatik bertara ezagutzeko. Guztira, 9 pertsona: 8 emakume eta gizon bat.
- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren bisita/aurkezpena: 18 emakume eta 2 gizon.
- Palentziako eta Valladolideko krisi zentroko bi emakumezko teknikariren bisita koordinatua.
- M8 eta A25 kanpainak zabaldu dira.
- Baliabidearen 6 aurkezpen egin zaizkie 112 zerbitzuko langileei; 2 ordu iraun zuten eta 61 pertsona bertaratu ziren (44 emakume eta 17 gizon).

- Sexu indarkeriaren arreta integraleko zentroaren (SIAIZ) aurkezpen bat egin da, NABlrekin eta GIBOATekin lankidetzan, ezarritako zonakatzearekin bat etorriz, zehazki Baztan, Malerreka eta Bortzirien eskualdean. Aurkezpen horren helburua baliabidea zabaltzea eta dauden zerbitzuak gogoraraztea izan zen, Foru Komunitatean dagoen arreta eta laguntza jasotzeko aukera indartzeko. Ordu eta erdi iraun zuen eta 29 pertsona bertaratu ziren (24 emakume eta 5 gizon). Era berean, Iruñeko udaleko gizarte ekintza arloko langileei aurkeztu zaie SIAIZ, NABlrekin eta ELUZekin batera. Aurkezpenak 2 ordu iraun zuen, eta 32 profesional bertaratu ziren (27 emakume eta 5 gizon).
- CIVICANeko XII. desgaitasun jardunaldietan parte hartu da, NABlarekin batera. Ordubete iraun zuen eta 150 pertsona bertaratu ziren (140 emakume eta 10 gizon).

Detekzioa, babesa, arreta eta erreparazioa

- Artatutako emakume kopurua: 207
 - Artatze psikologiko kopurua: 1417 hitzordu, 103 espedientetan.
 - Artatze juridiko kopurua: 235 hitzordu, 57 kasutan eta 48 aholkularitza puntualetan.
 - Gizarte langintzako artatze kopurua: 544 hitzordu, 207 espedientetan eta 177 aholkularitza puntualetan.
 - Gizarte heziketako artatze kopurua: 1192 hitzordu, 106 espedientetan.
 - Uneko indarkeriagatiko artatze kopurua: 73
 - Aurreko indarkeriagatiko artatze kopurua: 97
 - Bi indarkeriak: 37
 - Artatze kopurua, indarkeria motaren arabera:
 - Sexu erasoak: 202 (103 sarketarik gabeko sexu eraso eta 99 sexu eraso sarketarekin).
 - Sexu jazarpena 0
 - Inoren prostituzioaren esplotazioa: 1
 - Sexu indarkeriazko egintzak baliabide teknologikoen bidez zabaltzea: 2
 - Baimenik gabeko pornografia eta estortsio sexuala: 0
 - Emakumeen mutilazio genitala: 0
 - Ezkontza behartuak: 0
 - Sexu konnotaziozko jazarpena: 0
 - Sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketa: 2
- Artatze horietako 7 lan ingurunean gertatutako indarkeriengatik izan ziren.
- Lan eremuko indarkeria: 7
- Aholkularitza puntual kopurua: 177
 - Senideen eta/edo gertukoaren artatze kopurua: 40

Emakumeen kontrako indarkeriaren arloan nahitaez bete beharreko barne protokolo bat dago. Jarduera ebaluatzeko prozedura bat ere badago, eta erabiltzaileen gogobetetze maila ebaluatzen da.

Ezarritako hobekuntzen artean, Sexu indarkerien biktima diren eta desgaitasunen bat duten emakumeentzako harrera protokolo irisgarria aipatzen da, eta, hobetu beharreko arloen artean, ikusi da sexu indarkeria jasaten duten eta desgaitasunen bat duten emakumeen detekzioa eta bideratzea hobetu beharra dagoela.

Prestakuntza

SIAIZeko profesionalek hainbat prestakuntza jaso dituzte zentroa ireki zenetik, sexu indarkerien biktimei laguntzeko zerbitzura sartzen diren emakumeekiko esku-hartzea optimizatzeko.

Indarkeria kasuetan arreta egokia eta eraginkorra bermatzeko, funtsezkoa da SIAIZeko profesionalek egiten duten etengabeko prestakuntza espezializatua, biktimek dituzten arazoei hobeki egokitzen zaien esku-hartze integralagoa ahalbidetzen baitu.

Ikuspegi dialogikoari buruzko barne prestakuntza jaso dute taldekide guztiek, Gizain Fundazioaren ikuspegian espezializatutako teknikariek (gizonezkoek) emana. 3 orduko 4 saio izan dira.

Hona hemen SIAIZeko lantaldeak egin dituen zenbait prestakuntza:

- Sexu heziketan espezialista.
- HSA jasateagatik trauma duten helduekiko esku-hartze psikologikoko ikastaroa.
- Trauma ondoko estresaren nahasmenduaren diagnostikoan eta tratamenduan espezializatzeko I. unibertsitate Ikastaroa
- Trauman eta esku-hartze psikosozialean aditua.
- Genero, Emakume eta Berdintasun Gaietako unibertsitate masterreko titulua.
- Esku-hartze soziala prostituzio testuinguruetan.

Erantzun koordinatua

Lantalde espezifikoko hauetan parte hartu zen:

- Emakumeen mutilazio genitalaren aurkako protokoloa. Nafarroako emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko eta artatzeko diziplinarteko taldea.
- Ezkontza behartuen protokoloa. Nafarroako Ezkontza behartuak prebenitzeko eta artatzeko diziplina arteko taldea.
- Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen II. Ekintza Plana. Plana egiteko, baliabide espezializatuekin kontraste saio bat egin zen.

6.1.2.2. Akreditazioak eta laguntzak

Etxebizitza babestua eskuratzeko akreditazioa

Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 20. artikulua ezartzen du genero indarkeria jasaten duten pertsonak esleitu beharreko sustapenetako etxebizitza guztien % 3ko erreserba izanen dutela. Esleitu beharreko etxebizitza guztien % 6ra arte handituko da erreserba hori erosteko aukerarik gabeko akurako etxebizitzaren kasuan. Indarkeriaren biktima izatearen akreditazioak puntuak ematen ditu Nasuvinsaren eta sustatzaile pribatuen zerrendetan.

Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimek etxebizitza babestuen erreserba erosketa-edo akura-erregimenean eskura dezakete (10/2010 Foru Legea, Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzkoa). 2025ean, 480 akreditazio eskatu ziren, eta horietatik 404 eman ziren, 15 ukatu eta 14 artxibatu, eta 47 izapidetzen ari dira. 2024ko 435en aldean, eskaera igo egin da.

Baliabide ekonomikorik eza eta lanpostu bat erdiesteko zailtasun bereziak dituzten indarkeriaren biktimentzako laguntzak

Laguntza horiek behin bakarrik jaso ahal diren prestazio ekonomikoak dira, eta haien helburua emakumeen kontrako indarkeriaren biktimei bizirik irauten laguntzea da, erasotzailearekiko independentzia bultzaturik laneratzeko zailtasunei aurre egiteko.

2025ean, baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela eta lana lortzeko zailtasun bereziak dituztela akreditatzen duten genero indarkeriaren biktimentzako 40 laguntza eskatu ziren, NABIk kudeatutakoak; 12 eman ziren, 19 ukatu ziren eta 9 izapidetzen ari dira.

2025ean emandako gehienezko zenbatekoa 13.680 euro izan zen, gutxienekoa 3.420 euro eta batez bestekoa 7.905 euro.

6.1.3 Erantzun koordinatua

2025ean hau egin da:

- Berdintasun Ministerioarekin aurrez aurreko eta online bilerak, gai hauen inguruan:
 - Indarkeria matxisten aurkako estatuko estrategia (2022-2025)
 - Genero indarkeriaren aurkako Estatu Ituna
 - Berdintasunerako konferentzia sektoriala eta Berdintasunerako batzorde sektoriala
 - Krisi batzordeak
- Emakumearen aurkako indarkeriaren estatuko behatokiak eta Genero indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritzak bultzatutako hainbat lantaldetan parte hartu da, gai hauen inguruan:
 - Indarkeria digitalak
 - Sexu indarkeriak
 - Emakumeen kontrako indarkeria egoeren akreditazioak.
- Berdintasun Ministerioari informazioa helarazi zaio Nafarroako emakumeen kontrako indarkerian espezializaturiko arreta eta baliabideei buruz.

6.2 112 SOS NAFARROAREN JARDUKETAK

112 SOS NAFARROA aretoko emakumezko (% 65) eta gizonezko (% 35) operadoreek emakumeen kontrako indarkeria kasuak artatzen dituzte. Emakumeen kontrako indarkeriatzat jotzen diren larrialdi egoeretan esku hartzeko prozeduran sartzen da haien lana.

2025ean, baliabideak erabiltzea eragiten zuten 934 dei jaso ziren emakumeen kontrako indarkeriagatik:

- Justiziako psikologia zerbitzuak 308 artatze egin zituen
- SOS Nafarroatik aktibatutako 35 akonpainamendu egin zituen SIAIZek.
- 462 aldiz jarri ziren harremanetan larrialdietako profesional juridikoekin:
 - 413 Iruñerria – Zangoza inguruan
 - 19 Tuteria inguruan
 - 13 Tafalla inguruan
 - 17 Lizarra inguruan

Prestakuntza

Langile eta aretoetako buru guztiek SIAIZi eta emakumeen kontrako indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko baliabide espezializatuei buruzko prestakuntza jaso zuten.

Langileen etengabeko prestakuntza izan da hobekuntza nabarmena, eta, zailtasun nabarmena, esku-hartzean arreta eta sentsibiltate handia eskatzea.

6.3. OSASUN ARLOKO JARDUKETAK

Osasun Departamentuak NABIk bultzatutako lantalde espezifikoetan parte hartu du: Ezkontza behartuak eta Emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko eta horien aurrean jarduteko protokoloak egin eta eguneratzeko, eta Sexu esplotaziora bideratutako giza salerosketaren biktime diren emakume eta nesken alde koordinatzeko eta jarduteko protokoloa koordinatzeko eta haren jarraipena egiteko.

Sentsibilizazioa, prebentzioa eta ikerketa

A25eko kanpaina O-NOZeko laguntza sare osoan zabaldu zen.

Detekzioa, babesa, arreta eta erreparazioa

Emakumeen kontrako indarkeriaren arloan nahitaez bete beharreko barne protokoloak daude:

- Genero indarkeria jasan duten biktimei laguntzeko prozedura, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Larrialdi Zerbitzuan. Osasun arloko gizarte lana.
- NOUko larrialdietako osasun laguntzako protokoloa.
- Detekzio goiztiarrerako tresna
- Sexu indarkeriaren aurrean osasun arloan jarduteko protokoloa, O-NOZ osoarentzat.

Ez dago jarduera ebaluatzeko prozedurarik, eta ez da ebaluatzen erabiltzaileen gogobetetze maila.

2025ean, emakumeen kontrako indarkeriaren biktime izan diren eta/edo hartatik bizirik atera diren 1267 emakumeri eman zaie arreta, taula honetan ikus daitekeen moduan:

	Indarkeria fisikoa	Indarkeria psikologikoa	Sexu indarkeria	Zehaztu gabea	Guztira
Oinarrizko laguntza	714	81	48	18	861
Laguntza espezializatua*	146	3	50	207	406
Ehunekoa	% 67,87	% 6,63	% 7,73	% 17,77	1267

**Arreta espezializatuko datuak, batez ere, Larrialdi Zerbitzuei, SUOAZei, Ginekologia eta Obstetrizia Zerbitzuei eta Osasun mentalari dagozkie.*

Hobekuntzei dagokienez, 2025ean detekzio goiztiarreko estrategia finkatzen jarraitu da, eta ahalegin handia egin da haren gaineko prestakuntza 26 osasun eskualde oinarritzotara hedatzeko. Hori datuetan islatzen da; izan ere, identifikatutako kasuen

% 18,16 Estrategiaren testuinguruan detektatu ziren, eta gainerakoa ohiko detekzio bideei esker (arrisku adierazleen behaketa eta elkarrizketa sakona, gehienbat).

Emakumeen adinaren banaketak bere horretan jarraitzen du, maiztasun handiena 20 eta 45 urte bitartean dago oraindik ere; 2024arekin alderatuta, 14-19 urteko adin tartean kasu gehiago detektatu dira. Jatorrizko herrialdeari dagokionez, emakume migratzaileak % 51,36 dira, eta biztanlerian duten presentzia % 19,8 da, gutxi gorabehera. Horrek pentsarazten digu isuriek eta estereotipoek (egoera ekonomikoak, jatorriak, etab.) detekzioa baldintzatzen dutela.

Desgaitasunen bat duten 37 emakume artatu dira, 18 indarkeria fisikoagatik, 2 psikologikoagatik, 4 sexualagatik eta 13 kodifikatu gabeko baheketaren berrespen positiboarekin.

Zailtasunei eta hobetzeko arloei dagokienez, ezin izan dira interseksionalitatearekin lotutako eremu espezifikoak landu, ahalegin guztiak zeharkako detekzioaren arloan inbertitu direlako, oinarrizko prestakuntza jaso behar duten profesional anitz baitaude.

Prestakuntza

Prestakuntza hauek egin dira:

- Emakumeen kontrako indarkeriaren detekzio goiztiarra. Ordu eta erdiko 26 saio. 585 profesionalak hartu zuten parte: Oinarrizko osasun laguntzako taldeko, SUOAZeko, Arrisku Handiko Haurdunaldien Kontsultako eta Osasun mentaleko 517 emakumek eta 68 gizonek.
- Nafarroako osasun sisteman emakumeen kontrako indarkeria detektatzea eta hari heltzea. 11 profesional bertaratu ziren, denak emakumeak.
- Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko prestakuntza, familiako eta komunitateko mediku egoiliarrentzat (R2) eta barneko erizain egoiliarrentzat (R2). 5 orduko saio bat. 35 profesionalak hartu zuten parte (27 emakumek eta 8 gizonek).
- Emakumeen mutilazio genitalari buruzko prestakuntza, arreta goiztiarreko taldeetako eta SUOAZeko profesionalentzat. Bi orduko 9 saio. 193 profesionalak hartu zuten parte (172 emakumek eta 19 gizonek).

Prestakuntzari dagokionez, hobekuntza gisa hartzen da emakumeen kontrako indarkeria detektatzeko prestakuntza bultzada deszentralizatua.

Erantzun koordinatua

Hautemandako zailtasunei eta hobetu beharreko arloei dagokionez, komenigarria litzateke urtean gutxienez jarraipen bilera bat egitea, Osasuna eta SIAIZen arteko koordinazio protokoloaren egokitasuna baloratzeko.

Hobekuntza gisa, harrera baliabideetan (Osasuna-NABI) emakumeei egindako osasun jakinarazpenen (hitzorduen, txostenen) prozedura eguneratu da, datuak babesteko arduradunen laguntzarekin.

6.4. POLIZIAREN ARLOKO JARDUKETAK

6.4.1. Polizia kidegoek jasotako salaketak

Emakumeen kontrako indarkeriagatik Nafarroan jarritako polizia salaketen [2025eko urteko txostenean](#) jasotzen denez, 2.242 salaketa jarri ziren polizian 2025ean, 2024an baino 18 gehiago.

Indarkeria motari dagokienez

- Salaketen % 68,60 (1.538) indarkeria fisikoari eta psikikoari edo soilik psikikoari dagozkie
- % 18,60 (417) babes agindua urratzeari
- % 12,80 (287) sexu indarkeriari.

30 eta 49 urte bitarteko emakumeek salaketen % 48,66 jartzen dituzte, eta 18 eta 29 urte artekoek % 26,76. 235 emakume adingabek indarkeria salatu dute, 2024ko antzeko kopurua. Sexu indarkeria dela-eta salaketa jarri zuten emakumeen % 45,99k 18 urte baino gutxiago zituzten (132), eta % 27,18k, 18-29 urte.

Erasotzaileen adinari dagokionez, salatuen kopuru handiena 30-49 urtekoen taldekoa da (% 52,19), eta, ondotik, 18-29 urtekoen taldekoa (% 22,30). 80 erasotzaile adingabeen aurkako salaketak % 74,00 igo dira, 2024ko 46 salatuen aldean.

Indarkeria dela-eta salaketa jartzen duten lau emakumetik ia hiruk (% 73,69) uneko bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aurka egiten dute. Salaketen % 11,20an, emakumeek ez dute inolako harremanik gizon erasotzailearekin.

6.4.2. Foruzaingoa

Arreta espezializatuko taldeetan 5 emakumezko langile gehiago daude.

Sentsibilizazioa, prebentzioa eta ikerketa

M8ko, A25eko, jaietako, giza salerosketaren aurkako eguneko eta emakumeen mutilazio genitalaren aurkako eguneko kanpainak zabaldu dira.

Genero indarkeriaren Lege Integralaren ebaluazioan parte hartu da. Balantzea eta erronkak, 20 urtez indarrean egon ondoren, 1/2004 Lege Organikoak izan duen eragina eta bilakaera aztertzea, baita gaur egun dituen erronka nagusiak ere.

Hobekuntza gisa, ikastetxe gehiagori eman zaie emakumeen kontrako indarkeriari buruzko prestakuntza eta sentsibilizazioa, batez ere ziberindarkeriari buruzkoa. Guztira, 25 ikastetxetako 650 ikaslek hartu dute parte.

Zailtasun nagusia sentsibilizazio ekintza gehiago egiteko giza baliabide nahikorik ez izatea da.

Detekzioa, babesa, arreta eta erreparazioa

Genero indarkeria jasaten duten emakumeei eta sexu erasoren bat jasan dutenei laguntzeko lan prozedura normalizatuak daude. Era berean, genero indarkeriaren biktimei lehen polizia arreta emateko burutzaren instrukzio bat dago, eta erabiltzaileen gogobetetze maila ebaluatzen da. Ez dago jarduna ebaluatzeko prozedurarik.

Prestakuntza

Emakumeen kontrako indarkerian espezializatutako langileek prestakuntza hauetan parte hartu dute:

- *Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko prestakuntza.* 30 ordu. 50 pertsona (37 gizon eta 13 emakume)
- *Sexu indarkeriari buruzko I. jardunaldiak, ONVIOS-SEIren baitan.* 12 ordu, 4 pertsona (3 gizon eta emakume bat)
- *Sexu indarkeriei buruzko biltzarra.* OVDG-NABI. 12 ordu (6 gizon eta emakume bat)
- *Feminizidioei eta emakumeen kontrako bestelako indarkeria mota larri batzuei buruzko jardunaldiak.* Mossos D'Esquadra (14 ordu. Emakume bat)

Polizia espezializatuak ELJEZek eta Gobernuaren Ordezkaritzak antolatutako prestakuntza espezializatuetan izan dira.

Espezializatu gabeko unitateetako gainerako langileek *Nafarroako herritarren segurtasunerako ikastaroan (eguneratzea)* parte hartu dute. 2 ordu. 320 partaide (275 gizon eta 45 emakume).

Erantzun koordinatua

Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinatzeko erakunde arteko III. akordioa ezinbesteko tresnatzat jotzen da arlo horretan eskumena duten erakundeen artean jarduketa koordinatua, integrala eta eraginkorra bermatzeko. Foruzaingoak 2025. urtean

egin diren lantalde espezifiko, lankidetzatza proiektu eta koordinazio mahai guztietan parte hartu du.

Bestalde, erakunde arteko koordinazioa behar bezala egin da, gorabehera eta zailtasun nabarmenik erregistratu gabe.

6.4.3. Guardia Zibila

2025ean plantilla ez da aldatu.

Sentsibilizazioa, prebentzioa eta ikerketa

M8ko, A25eko, jaietako, giza salerosketaren aurkako eguneko eta emakumeen mutilazio genitalaren aurkako eguneko kanpainak zabaldu dira.

Gizon gazteekin egindako sexu indarkeriari buruzko Ruth Iturbideren azterlanean parte hartu da.

Hobekuntzen atalean, aipatzen da genero indarkeriaren biktimak babesteko jarduketa arauak ezarri eta argitu direla, eta erasotzaileekiko harremanak areagotu egin direla. Mugarri eta erronka aipagarriei dagokienez, gurasoek hirugarrenei ezkontzeko saldu zioten 13 urteko neska bat lokalizatu genuen.

Detekzioa, babesa, arreta eta erreparazioa

Emakumeen kontrako indarkeriaren arloan nahitaez bete beharreko barne protokolo bat dago. Gainera, jarduera ebaluatzeko prozedura bat dago, eta erabiltzaileen gogobetetze maila ebaluatzen da.

Hobekuntzen artean, bereziki zaurgarriak diren kolektiboei (adingabeei, desgaitasunen bat dutenei, hizkuntza oztopoak dituztenei, etab.) arreta emateari buruzko protokolo, baliabide eta jarraibideak daudela aipatzen da. Bestalde, ibilgailu kamuflatuak daude, beharrezkoa denean adingabeak edo biktimak lekuz aldatzeko egokiak. Dena den, batzuetan, NABIk mugikortasun irtenbide bat eman beharko lieke baliabide propiorik ez duten biktimei, poliziak beren eginkizunetatik ez ateratzeko.

Zailtasunei eta hobetu beharreko arloei dagokienez, bi aipatu dira: 1. Poliziak biktimak garraiatzea. Horretarako, egokiagoa da taxi konpainiaren batekin-edo hitzarmena egitea (poliziaren ordainagiriaren bidez egiaztatu beharko da hori), helburu horietarako poliziak beren eginkizunetatik ez ateratzeko. 2. Biktimentzako bizitokia, biktimek kontsumo arazoak, arazo psikiatrikoak edo maskotak dituztenean.

Prestakuntza

Unitate espezializatuetako langileek prestakuntza hau jaso dute:

- *VIOGEN 2 sistema, biktimari elkarriketa eta 2/2025 Funtzionamendu Teknikorako Araudia/ 8 ordu. 9 emakume eta 20 gizon bertaratu ziren.*
- *Gobernuaren Ordezkaritzak emandako VioGen jardunaldiak: "VioGen-2 sistemaren bidez poliziak kasuen arrisku maila eta jarraipena baloratzeko eta kudeatzeko protokolo berriaren inguruko prestakuntza" / 5 ordu. 5 emakume eta 4 gizon bertaratu ziren.*
- *Giza salerosketaren inguruko jardunaldiak, Lurraldeko Polizia Judizialeko Unitateak antolatuak/ 37,5 ordu. Gizon bat bertaratu zen.*

Unitate ez espezializatuetako gainontzeko langileek emakumeen kontrako indarkeriari buruzko prestakuntza jaso dute.

- *Biktimak VioGen sistemaren bidez artatzea / 2 ordu. 2 emakume eta 3 gizon bertaratu ziren.*
- *VioGen jardunaldiak / 5 ordu. 2 gizon bertaratu ziren.*

Prestakuntza hauek eman dira:

- *Puntu moreei buruzko prestakuntza CIVICANen/ 4 ordu. 6 emakume eta 4 gizon bertaratu ziren.*
- *Puntu moreei buruzko prestakuntza Ogasunaren ordezkartzan/ 4 ordu. 3 emakume eta 2 gizon bertaratu ziren.*
- *VioGen 2 sistema erabiltzen ikasteko prestakuntza Eguesibarko udaltzaingoarentzat / 2 ordu. 2 emakume bertaratu ziren.*

Zaila da eguneroko lana eta prestakuntzak uztartzea.

Erantzun koordinatua

- *Nafarroako protokolo eta akordioak eguneratzen edo horien jarraipena egiten lagundu zaie lantaldeei.*
- *Guardia Zibilak VioGeni atxikitzeke 2 protokolo sinatu ditu Foru Komunitateko udalekin, eta beste 5 berritu ditu.*
- *Tokiko koordinazio mahai guztietan parte hartu da.*

Hobetu beharrekotzat hartzen da, udalerrri edo mankomunitateekiko koordinazio mahaiei dagokienez, kasu batzuetan, haien edukia errepikakorra dela; beraz, zentzu eta erabilgarritasun handiagoa emateko, urtero egiten diren mahai arrunten kopurua murriztea balora daiteke.

6.4.4. Udaltzaingoa

2024an, ez da aldaketarik izan arreta espezializatuko taldeetako langile kopuruan.

Sentsibilizazioa, prebentzioa eta ikerketa

M8ko, A25eko, jaietako, giza salerosketaren aurkako eguneko eta emakumeen mutilazio genitalaren aurkako eguneko kanpainak zabaldu dira.

Hobekuntzat hartzen da Iruñeko auzoetako jaietan eta sanferminetan emakumeen kontrako indarkerian espezializatutako patruilatzea handitu dela.

Detekzioa, babesa, arreta eta erreparazioa

Ez dago emakumeen kontrako indarkeriaren arloan nahitaez bete beharreko barne protokolorik, ezta jarduna ebaluatzeko prozedurarik ere. Erabiltzailearen gogobetetze maila era ez zientifikoan ebaluatzen da.

2026rako emakumeen kontrako indarkeriaren salaketak jasotzeko instalazio berriak proiektatzen dira.

Hizkuntza oztopoak daude, baina zinpeko interpreteekin konpondu dira.

Erantzun koordinatua

Beste polizia batzuekin (Foruzaingoarekin, Nazionalarekin, Guardia Zibilarekin...) batera lan egiten da emakumeen kontrako indarkeriaren biktimei laguntzeko.

6.4.5. Polizia Nazionalea

Ez da aldaketarik izan Iruñeko Familia eta Emakumearen Arretarako Unitateko (UFAMeko, gaztelaniaz) langile kopuruan, 2024arekin alderatuta.

Informazio honek fitxan emandakoa laburbiltzen du. Fitxa bera eranskinean dago.

Sentsibilizazioa, prebentzioa eta ikerketa

M8ko, A25eko, jaietako, giza salerosketaren aurkako eguneko eta emakumeen mutilazio genitalaren aurkako eguneko kanpainak zabaldu dira.

Kanpaina hauek egin dira:

- Polizia Nazionalea eta A21 nazioarteko erakundea, *Haurren sexu esplotazioaren prebentzioa*. DBH-LH-Batxilergoko ikasleentzat eta familientzat.

- Polizia Nazionalea eta Mapfre Fundazioa, *Interneten eta IKTen erabilera segurua*. DBHko ikasleentzat eta familientzat.
- Polizia Nazionalea eta Espainiako pediatria elkarte, Espainiako pediatria sozialeko elkarte, Espainiako lehen mailako arretako pediatria elkarte. *Osasun digital onartzearen aholkuak*. Osasun langileentzat, ikastetxeentzat eta abarrentzat.

Sentsibilizazio-, informazio- eta prestakuntza-ekintzak.

- Ikastetxeetan eta inguruetan bizikidetzat eta segurtasuna hobetzeko plan gidaria. Segurtasunerako Estatu Idazkaritza. Barne Ministerioa. Haur eta nerabeei oinarritzeko eskubide eta askatasunen errespetuan, emakumeen eta gizonen arteko duintasun eta berdintasun balioetan eta eskola eremutik indarkeriazko jokabideak ezabatzeko beharrezko hezten laguntzea da helburua. Lehen Hezkuntzako, DBHko, LHko eta Batxilergoko ikasleekin 430 sentsibilizazio-, informazio- eta prestakuntza-jardura egin dira, eta *Interneten arriskuei buruzko 7 jardura*. Ziberindarkeria gurasoekin.

Sentsibilizazioa, prebentzioa eta ikerketa

Emakumeen kontrako indarkeriaren arloan nahitaez bete beharreko barne protokoloak daude

- 2021/05/15eko protokoloa, Polizia Nazionalean genero indarkeria dagoen kasuetarako.
- 2022/12/09ko protokoloa, sexu jazarpenaren eta sexu, genero, orientazio edo sexu identitateagatiko jazarpenaren aurrean jardutekoa.
- 247/2024 Errege Dekretua, martxoaren 8koa, estatuko administrazio orokorraren eta haren erakunde publikoen eremuan sexu jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren aurrean jarduteko protokoloa onartzen duena.

Prestakuntza

Unitate espezializatueta langileek prestakuntza hau jaso dute:

- Tuterako UFAMeko gizonetako arduradunak *Genero indarkeriaren arloan droga mendekotasunengatik bereziki zaurgarriak diren emakumeetako tratua espezializatzeko ikastaroa* egin du. 21 ordu
- Iruñeko UFAMeko gizonetako agente batek Segurtasunerako Estatu Idazkaritzak antolatutako *Sexu indarkeriari buruzko lehen jardunaldietan (ONVIOS)* parte hartu du. 10 ordu.
- *Genero indarkeriaren aurkako espezializazio juridikoari buruzko XXV. jardunaldia*. Iruñeko Abokatuen Elkargoak antolatuta. 6 ordu. UFAMeko emakume bat eta Herriarren segurtasunerako brigadako gizon bat.

Unitate ez espezializatueta gainerako langileek prestakuntza hau jaso dute:

- Emakume batek eta 3 gizonen parte hartu dute *VioGen-2 sistemaren bidez poliziak kasuen arrisku maila eta jarraipena baloratzeko eta kudeatzeko protokolo berriari buruzko jardunaldian*. Espainiako gobernuak Nafarroan duen ordezkaritza. 5 ordu.
- *Genero indarkeriako jarduketetan espezializatzeko ikastaroa* egin dute Tuterako polizia judizialeko hiru gizonekok, UFAMetik kanpokoak; izan ere, espezialitate horretako kideek egina dute ikastaroa. 30 ordu
- Herritarren segurtasunerako probintziako brigadako (BPSC, gaztelaniaz) funtzionario bat, emakumezkoa. *Bidegabekeria sexualen prebentziorako eta sentsibilizaziorako jardunaldiak*. Prestakuntza eta hobekuntza dibisioa. 2025eko uztailaren 8tik 9ra. 14 eskola ordu.

6.5. ARLO JURIDIKOKO ETA JUDIZIALEKO JARDUKETAK

6.5.1. Emakumeei Laguntza Juridikoa Emateko Zerbitzua (ELJEZ)

2025ean, langile bat gehitu zaie Iruñeko Elkargoko emakumeen kontrako indarkeriaren txandako kolegiatuei.

Detekzioa, babesa, arreta eta erreparazioa

2025ean 878 aholkularitza eta 803 laguntza eman dira, guztiak Iruñean.

Abokatutzako profesionalak IAETPren (Iruñeko Abokatuen Elkargo Txit Prestuaren) Ofiziozko txandaren araudiaren eta ELJEZen Antolamendu eta funtzionamendu arauen mende daude. Arau horiek barne erregimenekoak dira. Horrez gain, apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak (emakumeen kontrako indarkeriari aurre egitekoak) eta abenduaren 1eko 104/2021 Foru Dekretuak (Nafarroako Foru Komunitatean aplikatzekoa den doako laguntza juridikoaren erregelamendua onartzen duenak) ezarritakoak bete behar dituzte.

Barne erregimeneko arauak IAETPren Ofiziozko txandaren araudia eta ELJEZen Antolamendu eta funtzionamendu arauak dira.

Jarduna ebaluatzeko prozedura bat dago. Era berean, erabiltzailearen gogobetetze maila ebaluatzen da. IAETPk leihatila bakarra eta telefono bidezko, aurrez aurreko eta posta elektronikoko zerbitzua ditu, herritarrek kexak aurkeztu ahal izateko abokatutzako profesionalen jardunaren aurka.

2025an, Barnahus - Adingabeei laguntzeko zerbitzua 2026an abian jartzeko lanak egin dira. Horren bidez, sexu indarkeriaren biktima diren haur, nerabe eta adimen desgaitasuna duten pertsonen arreta emanen zaie. Hala, orain arte ELJEZek ematen zuen laguntza delituen biktima diren adingabeetan espezializatutako zerbitzu berri batek emanen ditu. Zerbitzu horrek prestakuntza espezifiko izanen du, eta Barnahusen bertan emanen da; hala, arreta integrala gune bakar batean kontzentratzen ahalko da.

Prestakuntza

2025ean, 2 orduko iraupeneko ELJEZentzako 10 prestakuntza saio espezifiko eman ziren. Horrez gain, *Genero indarkeriaren aurkako espezializazio juridikoari buruzko jardunaldiak* egin ziren, 6 ordukoak.

Batez beste 80 pertsona bertaratzen dira. Ez da sexuaren arabera bereizten, espezializazio jardunaldietan izan ezik.

Honekin batera doa 2025ean ELJEZek emandako/jasotako prestakuntza espezifikoa jasotzen duen eranskina.

Erantzun koordinatua

ELJEZ etengabe dago harremanetan Estatuko segurtasun indar eta kidegoekin eta organo judizialekin, koordinazio espezifikoa behar duten egoeretarako eta emandako laguntzan gerta daitekeen edozein gorabehera konpontzeko. Era berean, zerbitzua erakunde eta entitateen esku dago, biktimei ematen zaien arreta integrala koordinatzeko.

6.5.2. Emakumeen kontrako indarkerian espezializatutako Nafarroako jurisdikzio organoak

Emakumeen kontrako indarkeriaren arloko epaitegiei informazioa eskatu ondoren, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren webgunera jotzeko esan dute.

https://www.poderjudicial.es/portal/site/cgpj/menuitem.5cb0ab557c16177203f08712dc432ea0/?vgnextoid=00a2baf56882d210VgnVCM100000cb34e20aRCRD&vgnnextfmt=default&vgnnextlocale=eu&lang_choosen=eu

6.5.3. Nafarroako fiskaltza nagusia

Ez dago informaziorik, Nafarroako fiskaltza nagusiak ez baitu eskatutako informazioaren fitxa bidali.

6.5.4. Justiziako Gizarte Zerbitzua - Delituen Biktimen Arretarako Bulegoa (DBAB)

2025ean, Delituaren Biktimen Arretarako Bulegoak (DBABak) 810 akreditazio eman dizkie emakumeen kontrako indarkeriaren biktima diren emakumeei. 2024arekin alderatuta, % 30,64 gehiago.

Akreditazio horietatik 430 (% 50,08), abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak, Genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoak, tipifikatutako indarkeriei dagozkie.

-
- 309 (% 30,14) Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak tipifikatutako indarkeriei dagozkie.
- 71 (% 8,76) Sexu askatasunaren berme integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoak tipifikatutako indarkeriei dagozkie.

6.5.5. Nafarroako Auzitegi medikuntzaren eta Zientzia Kriminalistikoen Institutua (NAMZKI)

2025ean langile bat gehitu da, lanaldi erdiko emakumezko gizarte-langile bat.

Sentsibilizazioa, prebentzioa eta ikerketa

M8ko, A25eko, giza salerosketaren aurkako eguneko eta emakumeen mutilazio genitalaren aurkako eguneko kanpainak zabaldu dira.

Hobekuntzat hartzen da BFIUa abian jarri dela, mediku, psikologo eta gizarte-langile banarekin, denak emakumezkoak (bi lanaldi erdian).

Zailtasun gisa, BFIUan langile gutxiegi dagoela aipatzen da, eta horrek peritazioak anitz atzeratzen ditu. Gutxienez beste bi psikologo (emakumezko) beharko lirateke.

Detekzioa, babesa, arreta eta erreparazioa

Auzitegi medikuntzako 200 txosten eta 243 txosten psikologiko egin dira.

Balorazio Forentse Integraleko Unitateak(BFIUak) 88 aditu txosten bidali dizkie emakumeen kontrako indarkeria kasuekin lan egiten duten epaitegiei. Txosten batzuk dagoeneko eginda daude, eta beste batzuk zitazioaren zain edo idazteke daude.

Auzitegiko psikologoen (emakumezkoak) 191 aldez aurreko frogak egin dituzte.

Ez dago emakumeen kontrako indarkeriaren arloan nahitaez bete beharreko barne protokolorik, ezta jarduna ebaluatzeko prozedurarik ere. Ez da ebaluatzen erabiltzailearen gogobetetze maila.

Prestakuntza

NAMZKiko profesionalek prestakuntza hauetan parte hartu dute:

- *Sexu indarkeriari buruzko IV. biltzarra* (Extremadura)
- *Genero indarkeriaren aurkako psikologiaren inguruko XVI. estatu mailako jardunaldiak 2025* (Kataluniako Psikologoen Elkargo Ofiziala)
- *Haurren kontrako sexu indarkeriari eta Barnahus ereduari buruzko prestakuntza*
- *Sexu indarkerien detekzioa eta esku-hartzea arlo sozial eta psikologikotik: ikuspegi erreal eta eraginkorra*. 10 ordu. 2025eko urria. Ekialdeko Andaluziako Psikologoen Elkargo Ofiziala.
- *Emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko VIII. prestakuntza jardunaldiak: Biktimei ahotsa ematen*. Nafarroako Gobernuko ordezkartza. 2025eko azaroa.

- (2 pertsona).
- *Genero indarkeriari buruzko NAPlaren ikastaroa.*
- NUPeko masterra Genero, Emakume eta Berdintasun gaietan

Prestakuntza hau eman da:

- *Haurren kontrako sexu indarkeria. Aldez aurreko frogak* Hezkuntza departamentuan, Eskubide Sozietako departamentuan eta Foruzaingoan.
- *Pornografiaren kontsumoak adingabeengan eta gazteengan dituen eraginei buruzko tailerra* (Gobernuaren Ordezkaritza).

6.6. GIZARTE LAGUNTZAREN ARLOKO JARDUKETAK

6.6.1. Oinarrizko laguntza

Udaletako oinarrizko gizarte zerbitzuak eta auzo unitateak lehen baliabideak izaten dira emakumeen eta haien seme-alaben kontrako indarkeriaren biktimak detektatzen eta haiei lehen arreta ematen. 2025ean, 926 emakumek eskatu zuten errenta bermatua prozedura laburtuaren bidez.

Oinarrizko gizarte zerbitzuetan egindako esku-hartzeak erregistratzeko sistema berria jarri du martxan Eskubide Sozialetako Departamentuak (SISSNAk, Nafarroako Gobernuaren jabetzakoak, Ministerioaren jabetzako den SIUSSen ordeztu). Oraindik abian dagoen SISSNA ezartzeko prozesuan, ez dago emateko informaziorik.

6.6.2. Familia, haurrak eta nerabeak

Ez dago prestakuntzarik, Gizarte Eskubideetako, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuko Haurren, nerabeen eta familien zuzendariordetzak ez baitu bidali eskatutako informazioaren fitxa.

6.7. HEZKUNTZAREN ARLOKO JARDUKETAK

Ez dago prestakuntzarik, Hezkuntza Departamentuko Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzazerbitzuak ez baitu bidali eskatutako informazioaren fitxa.

6.8. ETXEBIZITZAREN ARLOKO JARDUKETAK

2025ean, emakumeen kontrako indarkeriaren biktima diren eta/edo hartatik bizirik atera diren 10 emakumek eskuratu dute etxebizitza babestua akura erregimenean. Beste 25 emakumek jasotzen zutena baino akurarako dirulaguntza handiagoa jaso dute, akreditazioaren arabera.

Biktima diren eta/edo bizirik atera diren 128 emakumek DAVID programaren bidez eskuratu zuten etxebizitza; 9 emakumek, VAIS programaren bidez; eta bakar batek ere ez EMANZIPA programaren bidez.

6.9. MIGRAZIO POLITIKEN ARLOKO JARDUKETAK

Ez dago prestakuntzarik, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak ez baitu bidali eskatutako informazioaren fitxa.

6.10. ENPLEGUAREN ARLOKO JARDUKETAK

2025ean, lekualdatze lehiaketarengatik eta oposizioarengatik langileak txandakatu egin direnez, emakumeen kontrako indarkerian espezializatutako 5 emakumezko tutorek egin zuten lan zerbitzuan, 2024an baino tutore gutxiagok, urte hartan zazpi tutore egon baitziren lurralde agentzietan eta 2 Iruñean.

Sentsibilizazioa, prebentzioa eta ikerketa

M8ko, A25eko, jaietako, giza salerosketaren aurkako eguneko eta emakumeen mutilazio genitalaren aurkako eguneko kanpainak zabaldu dira.

Hobekuntzat hartzen da Nafarroako Enplegu Zerbitzuan genero indarkeriaren biktimekin esku-hartze espezializatuak egiteko lanbide orientaziorako protokolo bat egitea eta, maila orokorragoan, Nafarroako Enplegu Zerbitzuan genero indarkeriaren biktimekin jarduteko eta haiek artatzeko protokolo bat ezartzea.

Zailtasuntzat hartzen da, berriz, langile berriek oinarrizko prestakuntza eta prestakuntza espezializatua falta dutela.

Detekzioa, babesa, arreta eta erreparazioa

2025ean, emakumeen kontrako indarkeriaren biktima diren eta/edo hartatik bizirik atera diren 295 emakumeri eman zitzairen arreta.

Gaur-gaurkoz, ezin da jakin indarkeriaren biktima diren eta/edo hartatik bizirik atera diren eta baliabideetan artatu diren zenbat emakume bideratu diren prestakuntza programetara, baina ibilbidea hasten duten pertsonen erdia baino gehiago hasten dira prestakuntza programetan. Halaber, ezin da jakin indarkeriaren biktima diren eta/edo hartatik bizirik atera diren eta baliabideetan artatu diren zenbat emakumek aurkitu duten lana Nafarroan. Indarkeriaren biktima izan diren eta/edo hartatik bizirik atera diren 7 emakumek jaso dituzte norberaren konturako jardueraren bat egiteko pizgarriak.

Emakumeen kontrako indarkeriaren arloan nahitaez bete beharreko barne protokolo bat dago, eta erabiltzaileen gogobetetze maila ebaluatzen da. Ez dago jarduna ebaluatzeko prozedurarik.

Prestakuntza

Emakumeen kontrako indarkeriaren tutore batek emakumeen kontrako indarkerian espezializatze ikastaro bat egin du. Kolektibo espezifikoekiko esku-hartzea, 15 ordukoa.

Gainerako langileek prestakuntza hauetan parte hartu dute:

- *Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko oinarritzko ikastaroa*/15 ordu. 11 pertsona bertaratu ziren (7 emakume eta 4 gizon).
- *Genero klausulei buruzko ikastaro espezializatua* /15 ordu. 3 emakume eta 2 gizon bertaratu ziren.
- *Hizkera eta komunikazio ez sexistak*/6 ordu. 3 emakume bertaratu ziren.
- *Emakumeen kontrako indarkeria: detekzioa eta hari heltzea* /10 ordu. Emakume bat bertaratu zen.

Erantzun koordinatua

Gaur egun, OGZekin eta harrera baliabideekin koordinatuta egiten dute lan, baina ikusten dute koordinazio askoz ere egituratuagoa behar dela emakumeei erantzun integrala emateko.

Hobekuntza gisa, emakumeen kontrako indarkeriaren biktima den emakume bat Nafarroako Enplegu Zerbitzuan sartzen denean dagoen barne koordinazioa aipatzen da, bai eta plantilla osoaren oinarritzko prestakuntza ere.

Zailtasun gisa, datuak ustiatzeko tresnak hobetu beharra.

6.11. GOBERNUAREN ORDEZKARITZAKO EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA KOORDINATZEKO UNITATEAREN JARDUKETAK

Informazio honek fitxan emandakoa laburbiltzen du. Fitxa bera eranskinean dago.

Sentsibilizazioa, prebentzioa eta ikerketa

Kanpaina hauek egin dira:

- *Ez zoaz bakarrik: indarkeria matxistarik gabeko Donejakue bidea* informazio kanpaina, emakume erromesei zuzendua.
- *Puntu morea* kanpaina: administrazio publikoei, elkarteei, GKEei eta merkataritza establezimenduei zuzendua
- Meninak aintzatespen-emateak: emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako borrokan inplikaturako administrazio publiko, ikastetxe, GKE, elkarte eta norbanakoei zuzendua.

Genero indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzaren eta Berdintasun ministerioaren kanpainak zabaldu dira: #ZeroBikarioIndarkeria; #Pornografia, gutxienez esateko.; #Arrautzetarako; #IndarkeriaDigitalaIndarkeriaDa; #Bai, oraindik nahi dugu; #Martxoak 8. Gure ahotsa. Ozenagoa. Argiagoa. Indartsuagoa. Jende guztiarentzat

M8ko, A25eko, giza salerosketaren aurkako eguneko eta emakumeen mutilazio genitalaren aurkako eguneko NABlren kanpainak zabaldu dira.

Hobekuntza gisa hartzen da, 2025ean, Gobernuak Nafarroan duen ordezkartzaren eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren arteko lankidetzaren hitzarmen baten ondorioz, Genero, Emakume eta Berdintasun Gaietako unibertsitate masterra egiten ari den ikasle bat koordinazio unitatean praktikak egitera etorri dela, 60 orduz. Praktika horiek urtero egiten dira apiriletik maiatzera bitartean.

Zailtasun eta hobetzeko arlo gisa, foru eta tokiko administrazioetan eta Nafarroako unibertsitateetan Puntu more iraunkorrik ez egotea.

Detekzioa, babesa, arreta eta erreparazioa

Taula honetan jasotzen da VioGen sistemaren bidez emandako arreta.

Arriskuen balorazioa	Kasu aktibo kopurua
Arriskurik ez, antza	832
Arrisku txikia	1798
Arrisku ertaina	318
Arrisku handia	30
Muturreko arriskua	0
GUZTIRA	2978
Garrantzi berezia duten arrisku muturreko, handiko eta ertaineko egoeran dauden banakako jarraipen kopurua	635
Babes dispositibo kopurua	
ATENPRO	180
Baliabide telematikoak	54
Etengabeko babes pertsonala	30

Emakumeen kontrako indarkeriaren arloan nahitaez bete beharreko barne protokolo bat dago, Segurtasuneko Estatu Idazkaritzaren jarraibideak izenekoak, genero indarkeriaren arrisku maila polizialki baloratzeko eta kudeatzeko eta VioGen sistemaren bidez kasuen jarraipena egiteko protokoloak ezartzen dituztenak. Gainera, jarduera eta erabiltzaileen gogobetetze maila ebaluatzeko prozedura bat ere badago, Estatuko segurtasun indar eta kidegoek jasotako gogobetetze inkesten bidez egiten dena.

Hobekuntzei dagokienez, tokiko bi polizia gehiago sartu dira VioGen 2n (Huartan eta Corellan). Iruña, Barañain, Burlata, Zizur Nagusia, Antsoain, Berriozar, Tuter, Atarrabia, San Adrián, Cintruénigo, Lizarra, Tafalla, Eguesibar, Altsasu eta Arangurenekin batera, Nafarroako 17 tokiko polizia daude VioGen 2ri atxikita 2025ean.

Zailtasunei dagokienez, salaketak eta kasu aktiboak ugaritu egin dira, eta horrek gaitzargarria dakar polizia agenteengan: arlo horretan diharduten polizia agente gehiago behar dira, Balorazio Forentse Integraleko Unitatearen txosten psikologikoak eta biktimekin eta biktimagileekin zerikusia duten gizarte txostenak VioGen2n sartu behar dira eta Nafarroako Auzitegi medikuntzaren eta Zientzia Kriminalistikoaren Institutuko Balorazio Forentse Integraleko Unitatean langile kualifikatu gehiago behar dira.

Prestakuntza

286 prestakuntza ordu jaso dira, 51 jardueratan. Jarraian horietako batzuk aurkezten dira. Gainerakoak eranskinean dagoen fitxan daude.

- *Pornografia eta sexu indarkeria: kontsumoaren ondorioak pertsonen arteko harremanetan*
- *Sexu indarkeriaren biktimentzako sorospen berria*
- *Emakume aitzindariak AAren aroan sektore publikoko emakumeen VII. kongresua*

Prestakuntza modalitate hauetan eman da:

- Unitateak antolatu eta emandako jarduerak: 3, guztira 15 prestakuntza ordu eta 149 partaide.
- Unitateak antolatutako jarduerak: 7, guztira 35 prestakuntza ordu eta 690 partaide.
- Unitateak emandako jarduerak: 5, guztira 6 prestakuntza ordu eta 255 partaide
- Ikastetxeetan eta haien inguruetan bizikidetzarako eta segurtasuna hobetzeko plan gidariaren barruan unitateak eman dituen jarduerak: 118 tailer eta hitzaldi Nafarroako 7 herritako 19 ikastetxetan, DBHko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleei zuzenduak. 3005 ikaslek hartu zuten parte, eta gai hauek jorratu ziren: *mikromatxismoak, maitasun erromantikoaren mitoak, bikote harreman osasuntsuak eta pornografiak nerabeengan dituen eraginak*.

Hobekuntzen artean, aipatzekoak dira Puntu moreak ezartzera bideratutako prestakuntzak nabarmen ugaitu direla, eta horrek emakumeen kontrako indarkeriari buruzko sentsibilizazio handia dakar, eta genero indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzaren bidez prestakuntza gehiago eskaini zaizkiela unitateei, barne komunikazioa hobetu dela, eta Estatuaren baliabideei buruzko informazioa eta datuak eskuratzea errazagoa dela.

Zailtasunei eta hobetu beharreko arloei dagokienez, bi behar ikusten dira:

- Polizia kidegoek VioGen 2 erabiltzeko prestakuntza gehiago eta, oro har, sentsibilizazio handiagoa behar dutela
- Puntu moreen ardura duten pertsonen prestakuntza etengabea behar dela, Puntu moreak egonkorak edo herriko jaiengatik izan
- Donejakue bideko aterpetxeetan lan egiten duten eta emakume erromesak artatzen dituzten pertsonen prestakuntza behar dutela, indarkeria egoerak detektatzeko eta prebenitzeko
- Nafarroako toki entitateek genero indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren funtsen xede egokiari buruzko prestakuntza behar dutela.

Erantzun koordinatua

Unitateak talde hauetan hartzen du parte:

- Genero indarkeriaren aurkako koordinazio batzordea Nafarroako Probintzia Auzitegian
- Sexu esplotaziorako giza salerosketaren biktimak babesteko esparru protokoloaren jarraipen batzordean
- Emakumeen kontrako indarkeria kasuetan koordinatzeko zazpi tokiko mahairen bileretan sei hilean behin
- Genero indarkeriaren arloan eskumena duten segurtasun indar eta kidegoekin eta VioGenera atxikitako udaltzaingoekin egindako bileretan.
- Estatuko Krisi Batzordearen eta kasu hilgarrien mahaiaren bileretan.

Hobekuntza, mugarri eta erronken artean hauek nabarmentzen dira:

- Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko tokiko koordinazio protokolo eta tokiko koordinazio mahai gehiago egin direla.
- Puntu moreak ezarri dira Nafarroako hainbat administrazio publiko zein erakundetan: 15 EAO eta 2 beste erakunde batzuetan.

Zailtasun eta hobetu beharreko arlo batzuk:

- Unitateak ez du gonbidapenik jaso populazio eragin handiko tokiko koordinazio mahai batzuetan parte hartzeko: Iruña edo Tuteran.
- Nafarroako toki entitateekiko koordinazioa hobetzea, genero indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren funtsak zertarako erabiltzen diren jakiteko eta zuzenketak saihesteko.
- Unitatearen eta Nafarroako Gobernuako departamentu batzuen arteko koordinazioa hobetu behar da, kolektibo batzuei (irakasleei, adibidez) zuzendutako prestakuntza jarduerak egiteko.

6.12. TOKIKO JARDUKETAK

6.12.1. IRUÑEKO EMAKUMEEI LAGUNTZEKO UDAL ZERBITZUA (ELUZ)

2025eko martxoan emakumezko psikologo bat hasi zen lanean, lanaldi osoan.

Sentsibilizazioa, prebentzioa eta ikerketa

M8ko, A25eko, jaietako, giza salerosketaren aurkako eguneko eta emakumeen mutilazio genitalaren aurkako eguneko NABiren kanpainak zabaldu dira.

Detekzioa, babesa, arreta eta erreparazioa

ELUZek 616 emakume artatu ditu 2025ean; horietatik 240 kasu berriak dira, eta gainerako 376ak aurretik ere artatu zituzten.

Hona hemen 2025ean lehen aldiz artatutako emakumeen datuak: 170k indarkeria motaren bat jasan dute (% 4,2k, indarkeria mota bat baino gehiago)

Indarkeria mota hauek jasan dituzte:

Harreman afektibo baten testuinguruan (143 emakume)

- Indarkeria psikologikoa: 53
- Indarkeria fisikoa eta psikologikoa: 49
- Indarkeria psikologikoa eta sexuala: 4
- Indarkeria psikologikoa eta ekonomikoa: 8
- Indarkeria fisikoa, psikologikoa eta sexuala: 11
- Indarkeria fisikoa, psikologikoa eta ekonomikoa: 10
- Indarkeria psikologikoa, ekonomikoa eta sexuala: 1
- Indarkeria fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa eta sexuala: 6
- Indarkeria motaren gaineko daturik gabe: 1

Familia eremuan (bikotekidea edo bikotekide ohia ez den beste gizon batengatik) (6):

- Indarkeria psikologikoa: 5
- Indarkeria fisikoa eta psikologikoa: 1

Hautzaroan indarkeria testuinguruetan bizi izanaren ondorioak (9):

- Indarkeria psikologikoa: 1
- Sexu abusuak: 1
- Amaren kontrako indarkeriaren lekukoak: 4
- Indarkeria fisikoa eta psikologikoa: 1
- Indarkeria psikologikoa eta amaren aurkako indarkeriaren lekukoak: 1

- Indarkeria fisikoa, psikologikoa eta sexu abusua: 1

Aholkularitza eta laguntza biktimen familiari eta ingurukoei: 7

Indarkeria eremu publikoan (13):

- Sexu erasoak: 2
- Prostituzioa /Sexu esplotazioa: 5
- Sexu esplotaziora bideratutako emakumeen salerosketa: 6

Artatutako adingabe kopurua: 6 neska eta 6 mutil.

- Indarkeria psikologikoa: 12
- Sexu indarkeria: 1

Artatze sozial kopurua: 1112

Artatze psikologiko kopurua: 811

Artatze legal/juridiko kopurua: 370

Adingabeentzako artatze kopurua:

- Adingabeentzako artatzeak: 60
- Seme-alabak direla-eta amentzako artatzeak: 66
- Adingabeen balorazioa: 8

DUO programa

DUO programak gizarte zailtasunak dituzten eta genero desberdinkeria jasaten duten emakumeei eta beren seme-alabei arreta psikologikoa ematen die. Partaideak barne modalitatean sartzen ahal dira udalaren etxebizitzetan bizi badira, edo kanpo modalitatean, beren etxetik hartzen badute parte.

- Emakume kopurua: 40
- Adingabe kopurua: 32 neska eta 36 mutil.

Ez dago emakumeen kontrako indarkeriaren arloan nahitaez bete beharreko barne protokolorik, ezta jarduna ebaluatzeko prozedurarik ere. Erabiltzailearen gogobetetze maila ere ez da ebaluatzen.

Ezarritako hobekuntza, mugarri eta emaitza aipagarrien artean, espediente berrietan desgaitasunari buruzko datuak sistematikoki biltzea eta emakumeen kontrako indarkeria testuinguruetan bizi diren adingabeei arreta emateko programa abian jartzeko lanaldi osoko psikologo bat lanean hastea aipatzen dira. Diseinatutako protokoloan jasotzen denez, lanpostuak funtzio hauek ditu:

- Adingabeekiko zuzeneko esku-hartzeen egokitasuna baloratzea.
- Adingabeekin esku-hartzea, egoki irizten zaionean.
- Seme-alabak direla-eta amak artatzea.

Eta hautemandako zailtasunen eta hobetu beharreko arloen artean, adierazten da baliagarria izanen litzatekeela indarkeriaren biktima diren emakumeak akreditatzeko sistema bateratzea, hainbat prestazio eta laguntzetarako dokumentu bakarra egon dadin, egokitzen jotzen den balio epearekin. Ildo beretik, positiboa litzateke txosten eredu bateratu bat eta irizpide argiak izatea, kasuak akreditatu behar diren erabakitzeke. Era berean, egokitzen jotzen da indarkeriaren biktima dela akreditatzeko behar diren prestazio eta egoera guztiak dokumentu batean jasotzea, eta dokumentu hori aldian-aldian eguneratzea. Txostenak egiteko ahalmena duten erakundeei bidali beharko litzaieke.

Prestakuntza

ELUZeko langileek prestakuntza hauek egin dituzte:

- *Genero indarkeria prebenitzeko maskulinitateak eta berdintasuna lantzeko tresnak eta baliabideak* / 20 ordu. Emakume bat bertaratu zen
- *STOP indarkeria bikarioa jardunaldia* / 4 ordu. 2 emakume bertaratu ziren
- *Genero indarkerian espezializatzeko ikastaroa* / 25 ordu. Emakume bat bertaratu zen
- *Sanferminetako sexu indarkeriaren biktimei laguntzeko zerbitzuarentzako prestakuntza* / 18 ordu. 2 emakume bertaratu ziren
- *Indarkeriari aurre egiteko baliabideen aurkezpena* / 2 ordu. 2 emakume bertaratu ziren
- *Maskulinitatea eta indarkeria* / 50 ordu. Emakume bat bertaratu zen
- *Sexu indarkeriaren biktima diren emakumeen desgaitasunarentzako arreta* / 3 ordu. Emakume bat bertaratu zen
- *Guraso eta seme-alaben arteko indarkeria kasuetan esku-hartzea* / 8 ordu. Emakume bat bertaratu zen
- *Genero indarkeriari buruzko oinarrizko ikastaroa* / 10 ordu. Emakume bat bertaratu zen
- *Indarkeria egoeran dauden adingabeekin esku-hartzea* / 10 ordu. 2 emakume bertaratu ziren
- *Emakumeen kontrako indarkeria: detekzioa eta hari heltzea* / 10 ordu. Emakume bat bertaratu zen

ELUZek emandako prestakuntza

- Iruñeko udaleko profesionalei indarkeriari aurre egiteko baliabideak aurkeztea / 2 ordu. Ez dago bertaratutakoen daturik.
- Alde Zaharreko haurren sareari ELUZi buruzko informazioa ematea / 4 ordu. 12 partaide.

- Adsis Fundazioari ELUZi eta genero indarkeriari buruzko informazioa ematea (Hobetuz programa) / 4 ordu. Ez dago bertaratutakoen daturik
- Genero indarkeriari buruzko saioa BAPEko prestakuntza programan / 2 ordu. Ez dago bertaratutakoen daturik.

Erantzun koordinatua

ELUZek talde hauetan parte hartzen du:

- Giza salerosketaren biktimak babesteko jarraipen batzordea (Gobernuaren Ordezkaritza)
- Genero indarkeriaren aurkako koordinazio batzordea (Nafarroako Probintzia Auzitegia).
- Nafarroako emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko eta artatzeko protokoloaren diziplinarteko taldea (NABI)
- Nafarroako emakumeen mutilazio genitala (EMG) prebenitzeko eta artatzeko protokoloaren diziplinarteko taldea
- Genero indarkeria egoeran dauden adingabeei laguntzeko haurrentzako programen eta ELUZen arteko koordinazio batzordea (Gizarte Ekintza Arloa - Iruñeko udala)
- Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko talde iraunkorra (Berdintasun Arloa- Iruñeko udala)

6.12.2.TOKI ENTITATEAK

Jarraian, 26 toki entitateetako (emakumezko) berdintasun teknikariek emandako informazioaren laburpena aurkezten da. Xehetasun gehiago nahi izanez gero, eranskinean dago dokumentazio osoa.

Sentsibilizazioa, prebentzioa eta ikerketa

Fitxa beteta bidali duten 26 toki entitateetatik 11k (% 42k) aholkularitza juridikoa dute, eta 12k (% 46,15ak) aholkularitza psikologikoa. Baztan, Bortziriak eta Malerreka kasuan, taldeko laguntza psikologiko espezializatua eskaintzen da. 5 toki entitatek (% 19,23k) bi zerbitzuak dituzte (Barañain, Berriozar, Iruña, Eguesibar eta Lizarrak).

Antsoainek, Burlatak, Sakanako Mankomunitateak eta Ekialdeko Pirinioek ez dute informaziorik bidali.

Taula honetan jarduteko dituzten protokoloei buruzko informazioa dago:

	Emakumeen kontrako indarkeria	Sexu erasoak jaietan	Sexu jazarpena eta sexuagatiko jazarpena	TKM
Bai	19	21	17	23

Ez	7	5	9	3
----	---	---	---	---

Toki entitateek emakumeen kontrako indarkeriari buruzko ikerketa hauetan parte hartu dute:

- Erroibarko eta Aezkoako berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren diagnostikoa eguneratzen eta Artzibarko eta Orotz-Beteluko berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren I. diagnostikoa egiten. Bi diagnostikoetan informazio kualitatiboa biltzen da, dauden baliabideak aztertzen dira, beharrak detektatzen dira eta landa eremuan jarduteko proposamenak egiten dira.
- Bortzirietako emakumeen kontrako indarkeria eta tokiko erantzunaren diagnostikoa.
- Zizur Nagusian emakume arrazializatuen aurkako indarkeria instituzionalaren gaineko azterlana egin da.
-
- Nafarroako Erdialdeko toki entitateek NUPeko Ruth Iturbide Rodrigok zuzendutako Sexu indarkeria gazteengan azterlanean parte hartu dute.
- TEDER elkarteak NUPeko Ruth Iturbide Rodrigok zuzendutako Sexu indarkeria gazteengan azterlanean parte hartzen saiatu zen, baina ezin izan zuen, ez baitzuen lortu 14-29 urteko gizon gazteen talderik sortzea.

Sentsibilizazio ekintzetan parte hartzeari dagokionez:

- 26k (% 100ak) A25eko kanpaina zabaldu dute
- 25ek (% 96,15ek) M8ko kanpaina zabaldu dute
- 23k (% 88,46k) jaietako kanpaina zabaldu dute
- 6k (% 23,07k) emakumeen mutilazio genitalaren kanpaina zabaldu dute
- 5ek (% 19,23k) giza salerosketaren aurkako kanpaina zabaldu dute

Beste kanpaina hauek zabaldu dira eta haietan parte hartu: Urriaren 15a. Landa eremuko emakumeen eguna, Emakume eta neska zientzialarien eguna, Degaitasunen bat duten emakumeen eguna, Zaintza, Emozioen kudeaketa, Arreta baliabide espezifikoaren zabalpena, apirilaren 26a. Lesbianak ikusarazteko nazioarteko eguna (maiatzaren 17a). Homofobiaren, transfobiaren eta bifobiaren aurkako nazioarteko eguna (ekainaren 28a). LGBTBI+ harrotasunaren nazioarteko eguna eta Pirinio mailan jaietan indarkeria matxistak prebenitzeko kanpaina

Hobekuntzei dagokienez, hona hemen toki entitateetako (emakumezko) berdintasun teknikariek adierazi dituztenak:

- Udaletako arloko arteko lankidetzak M8ko eta A25eko programaziorako, eta jarduerak elkarrekin antolatzea.

- Desgaitasunen bat duten emakumeekin lan egiten duten gizarte erakundeentzako sentsibilizazio kanpainak espezifikoki zabaltzea, haien erabiltzaileekin lan egin dezaten.
- Mugikortasun urriko pertsonentzako eserlekuak erresebatzea berdintasun arloak kultur etxean antolatutako ekitaldien lehen lerroetan, gertuko aparkaleku espezifikoak erraztea eta eserlekuak aldeztu aurretik egokitzea mugikortasun murriztua duten pertsonak gorpil aulkietatik besaulkietara eramateko.
- Materialak, kanpainak eta adierazpen instituzionalak irakurketa errazeko bertsioan egitea.
- Toki erakundeek, NUKFk eta NABIk helburuak eta lan ildoak partekatzeke egiten duten sareko lana.
- Jaietan indarkeria matxistak eta sexu indarkeriak prebenitzeko material berriak egitea.

Zailtasunei eta hobetu beharreko arloei dagokienez, hauek nabarmentzen dira, besteak beste:

- Kosta egiten da herritarrek antolatzen diren ekitaldietan parte hartzea. Batez ere, gazteen parte hartzea gero eta txikiagoa da prestakuntza- eta/edo sentsibilizazio-ekintzetan, eta horrek ekintzen eragina txikiagotzen du.
- Zaila da sentsibilizazioari eta prebentzioari heltzea dauden protokoloak koordinatzeko mahaian.
- Zaila da indarkeriari buruzko datuak biltzea. Datuak biltzeko erabilitako prozedurak etengabe jartzen dira zalantzan, datuak babesteko araudia dela-eta.
- Puntu moreei eta haien eraginkortasunari buruz hausnartu behar da. Puntualki informatu eta oso ordutegi mugatua arreta eman dute, baina hainbat kolektiborentzat (politikari, langile, jaietako batzorde, ostalaritza, kultura eragile, kirol elkarte eta abarrentzat) indarkeria matxistaren aurkako prestakuntza plan integral bat behar dela ikusten da.
- Protokoloen jarduketara prozeduretan baliabideak aurreikusten dira, baina ez zaizkie bitartekoak ematen. Adibidez, lan ordutegitik kanpoko kasuetan, ez dago NABIrekin larrialdietan harremanetan jartzeko modurik. Udalekoak horretarako prest egonen garela espero da, baina ez dago zaintza zerbitzu antolaturik edo halakorik.
- Pertsona bakarrek unitateek lan karga handia dute. Ez dute administrazio langilerik eta toki erakundeak, NUKFk eta NABIk eskatutako lanari aurre egin behar diote.
- Jaietan, berdintasun teknikariak bakarrik du erantzukizuna.

Detekzioa, babesa, arreta eta erreparazioa

Hobekuntza hauek nabarmentzen dira:

- Biktima diren emakumeak artatzen dituzten zerbitzuen arteko koordinazioei dagokien guztia: GIBOAT, OGZ, osasun etxeak, udaltzaingoak eta berdintasun zerbitzuak.
- Hizkuntza oztopoak dituzten emakumeentzako arreta hobetu da.
- Adingabeentzako arreta hobetu da ikuspegi dialogikoari buruzko prestakuntza emanik, arretaren kalitatea hobetzeko.
- Artatze guneak eta itxarongelak egokitu dira.
- Garraio- eta zaintza-zerbitzua, emakumeei genero indarkeriako egoeretan laguntzeko jarduera zein zerbitzuetara joaten laguntzeko (elkarguneetara, laguntza psikologikora, epaitegietara eta abarretara joaten laguntzeko).
- Desgaitasunen bat duten emakumeentzako arreta: desgaitasunen bat duten pertsonentzako informazio puntuak hobetu dira.
- Hizkuntza oztopoak dituzten emakumeentzako arreta: materialak hainbat hizkuntzatan editatu dira (ingelesez, frantsesez, txineraz, errumanieraz, arabieraz).
- Udal langile guztiei zabaldu zaie Berdintasunerako barne postontzia.
- Sexu jazarpena eta sexuagatiko jazarpena prebenitu eta haren aurrean jarduteko protokolo bat diseinatzeko parte hartu da, berariaz DELZarentzat (etxeko laguntza zerbitzuarentzat).
- Emakume adingabeei laguntza psikologikoa emateko zerbitzu berezia.

Zailtasunei dagokienez:

- Baliabide profesional eta material gehiago, prestakuntza gehiago, deszentralizazioa eta emakumeei eta profesionalei entzutea eskatzen da.
 - GIBOATek eta SIAIZek giza baliabide eta baliabide material gehiago behar dituzte, ongi trebatuak, lurraldean mugitzen ahalko direnak. Gainera, itxaron zerrendak murriztu behar dira eta psikologoarekin saio mugarik ez izatea.
- Ez da egokitzat jotzen sexu indarkeria kasuak GIBOATetara bideratzea.
- ELJEZ ez denez lekuz aldatzen, emakumeak bermerik gabeko prozesu judizialetan murgilduta egoten dira lege izapidea hasten denetik, ez dute nahikoa informazio erabaki egokiak hartzeko, kasua baloratzeko garrantzitsua den informazio guztia ez duten salaketak sinatzen dituzte...
- Oso gutxitan ematen da laguntza psikologikoa salaketa jarri aurretik. Polizia etxeetako salaketetan, oso gomendagarria da laguntza juridiko espezializatua eta psikologikoa izatea. Batzuetan, ez da halakorik eskaintzen polizia etxeetan. Batzuetan, ELJEZean unean dagoen abokatuaren eta emakumearen arteko telefono bidezko elkarrizketak egiten dira.
- Emakume arrazializatuen faktore interseksionalak agerian gelditzen dira ez dutelako baliabideekiko konfiantzarik. Sumatzen da tratatzen diren kasuak icebergaren punta baino ez direla.

- Adingabeak artatzeko zailtasunak, baliabide berezi eta espezializaturik ez dagoelako.
- Desgaitasuna duten emakume gutxi jartzen dituzte salaketak, nahiz eta estatistiken arabera emakumeen kolektibo espezifiko horren kontrako indarkeria handiagoa eta intentsitate handiagokoa den, beste emakume talde batzuen kontrakoarekin alderatuta.
- Habitata sakabanatuta dago, eta, horrez gain, baliabide tekniko eta giza baliabide espezializatu gutxi daude. Hori dela eta, jarduketa puntualei eman behar zaie lehentasuna
- Zuzeneko arreta (aholkularitza juridikoa eta psikologikoa) emateko zerbitzuen eskasia, koordinazio protokolorik ez egotea edo eskualde batzuetan koordinazio egitura egonkorrik gabeko protokolo partzial batzuk egotea. Horrek erantzun zatikatu sortzen du, langile ez espezializatuen ekimen indibidualen mende dagoena eta kasuak detektatzeko, bideratzeko eta haien jarraipena egiteko mugak dituen, muga handiagoak landa lurraldea delakoa eta sakabanatuta dagoelako.
- Askotariko emakumeengana eta/edo egoera zaurgarrian daudenengana (gazteengana, migratzaileengana, desgaitasunen bat dutenengana...) iristeko zailtasunak.
- Erreparazioa lantzeko zailtasunak, bai bakarka bai taldean.

Prestakuntza

Erantzun duten 26 toki entitatetatik 24tan (% 92,30ean) berdintasun teknikariek (emakumezkoak) emakumeen kontrako indarkeriari buruzko prestakuntza jaso dute. Gainerako langileek 21 toki entitatetan (% 80,76an) jaso dute prestakuntza. 2 entitatetan (% 7,69an), eskura dagoen prestakuntzari buruzko informazioa bidaltzen da, baina ez dakite zer parte hartze izan den, eta beste bitan (% 7,69an) ez da prestakuntzarik egin. Azkoingo OGZMren kasuan, 2025. urtearen hondarrean ezarri zen Berdintasuneko lanpostua, eta, beraz, ez da denborarik izan prestakuntzarik antolatzeko.

Hobekuntzei dagokienez, berdintasun teknikariek (emakumezkoak) oso positibotzat jotzen dute emakumeen kontrako indarkeriarekin aurrez aurre lan egiten duten pertsonen prestakuntza (poliziak, gizarte zerbitzuak, osasuna), bai eta politikariek jasotakoa ere. Partaideek ere balorazio bera egin ohi dute. Tokiko mugimendu feministaren parte hartzea ere oso interesgarritzat jotzen da. Era berean, ikusten da prestakuntza programetan parte hartzean lankidetzat eta koordinazioa errazten direla.

Kasu anitzetan, baliabideak optimizatzeko eta lurraldearen eta demografiaren errealitateari erantzuteko, prestakuntzak udalaz gaundiko mailan egiten dira. Esku-hartzeak eragin handiagoa du, baliabide publikoak hobeki aprobetxatzen dira, eta zubiak eraikitze eta profesionalen arteko harremanak hobetzeko balio du; hala, sareko lana

hobetzen da, informazioa hobeki partekatzen da eta erakundeak hobeki koordinatzen dira

Hauek dira zailtasun eta hobetu beharreko arlo nagusiak:

- Mahaikideek indarkeriari buruzko prestakuntza maila ezberdinak dituzte eta ez dira beti bileretara joaten.
- Foru Diputazioko langileak anitz mugitzen dira (Osasunbidea, segurtasun indar eta kidegoetako agenteak, zerbitzu berezietako langileak...).
- Arretaren hizkuntzarekin arazoak, Baztango foru zerbitzuetao langile anitzek ez baitute hizkuntza eskakizunik.
- Protokoloan parte hartzen duten zerbitzu batzuek (osasun etxeek eta farmaziek) ez dute parte hartzen, eta ordezkari politikoeak, halaber, ez dute prestakuntzetan parte hartzen.
- Toki entitateetako langileek eta eskualdeko gainerako eragileek kostata hartzen dute parte, batez ere segurtasun indar eta kidegoetako langileek.
- Adingabeen sarean esku hartzen duten profesionalei indarkeriari buruzko prestakuntza espezifikoa falta zaie. Bereziki, ziberindarkeriaren eta sexu indarkerien ingurukoa.

Erantzun koordinatua

Koordinazioari buruzko ekintza guztiak (eranskineko fitxetan azaltzen dira) positiboki baloratzen dira, erantzuteko gaitasuna hobetzen baitute. Hala ere, beharrezkotzat jotzen da berdintasun arloaren, gizarte zerbitzuen, osasun arloaren, hezkuntza arloaren eta tokiko erakundeen arteko koordinazioa hobetzen jarraitzea eta lurraldean lankidetzarako egitura egonkorrak sendotzea.

6.12.3. NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOA (NUKF)

Ez dago prestakuntzarik, NUKFek ez baitu eskatutako informazioaren fitxa bidali.

7. GLOSARIOA

EO	Estatuko Administrazio Orokorra
BARNAHUS	Sexu indarkeriaren biktime diren adingabeei osoko arreta emateko eredua
SIAIZ	Sexu indarkeriei arreta integrala emateko zentroa
CARO (gaztelaniaz)	Arrisku handiko haurdunaldien kontsulta
SUOAZ	Sexu- eta ugalketa-osasunaren arretarako zentroak
BJKN	Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia
DUO	Iruñeko Udaleko <i>Date una oportunidad</i> programa
HNLT	Haurrei eta nerabeei laguntzeko taldea
GIBOAT	Genero indarkeriaren biktimei osoko arreta emateko taldea
EMUME (gaztelaniaz)	Guardia Zibilaren emakume–adingabe taldea
Segurtasun indar eta kidegoak	Segurtasun indar eta kidegoak
NUKF	Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa
NABI	Nafarroako Berdintasunerako Institutua
NGI	Nafarroako Gazteriaren Institutua
NAMZKI	Nafarroako Auzitegi medikuntzaren eta Zientzia Kriminalistikoen Institutua
NOPLOI	Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua
EMG	Emakumeen mutilazio genitala
IAETP	Iruñeko abokatuen elkargo txit prestua
TKM	Tokiko protokoloen tokiko koordinazio mahaiak
OGZM	Oinarrizko gizarte zerbitzuen mankomunitatea
DBAB	Delituen biktimei arreta emateko bulegoa edo Nafarroako delituen biktimei laguntzeko eta organo judizialekin aritzeko atal
SHAB	Udaltzaingoaren Salaketetarako eta herritarren arretarako bulegoa
Harrera baliabideak	Harrera baliabideak: Larrialdietako zentroa, babes etxea eta egoitza etxebizitzak
ELJEZ	Emakumeei laguntza juridikoa emateko zerbitzua

SEPE (gaztelaniaz)	Estatuko enplegu zerbitzu publikoa
ELUZ	Iruñeko Emakumeei laguntzeko udal zerbitzua
NL-NEZ	Nafar Lansare-Nafarroako enplegu zerbitzua
O-NOZ	Osasunbidea-Nafarroako osasun zerbitzua
OGZ	Oinarrizko gizarte zerbitzuak
Nafarroako JAN	Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusia
UAVDI (gaztelaniaz)	Adimen desgaitasuna duten biktimei laguntzeko unitatea. Nafarroako Kutxa Fundazioa
UFAM (gaztelaniaz)	Familia eta emakumearen Polizia Nazionalaren unitatea
BGAU	Udaltzaingoaren Babeserako eta gizarte arretarako unitatea
NUP	Nafarroako Unibertsitate Publikoa
BFIU	Balorazio Forentse Integraleko Unitatea
ABP	Arriskuaren balorazio poliziala